



# GIZARTEAREN PARTE-HARTZE PRESENTZIAL ZEIN DIGITALAREN EKARPENEN AZTERKETA

Idatzi honetan, gizarteak oro har LAGen berrikuspenaren aurrerapenean egindako ekarpenak zertan gauzatu diren aztertzen da. Horretarako, prozesuan zehar erabilitako aurkibidea hartu da abiapuntu (Oinarrizko Dokumentutik ateratakoa), eta horretan tailerretan bertan egindako ekarpenak zein parte-hartze digitalaren bidez (partikularrek egindako ekarpenak) egindakoak adierazten dira.

Banan-banan aztertu baino lehen, zenbait gauza adierazi behar ditugu:

1. Zenbait kontu LAGak baino eskala txikiagokoak dira. Kontu horietarako, aztertu dugu ea LAGen testuak aukera ematen duen ala ez ekarpenak eskatutakoaren ildoko garapenerako.
2. Zenbait kontu LAGen irismenetik kanpo daude, dela ez direlako zuzenean lurraldean islatzen, dela beste sail edo administrazio batzuek jorratutako alderdi sektorialak direlako. Horietarako, oso irizpide orokorrak adierazi ditugu, eta lurraldean eragin dezaketen heinean soilik, baina, betiere, dagokionaren eskumena errespetatuz.

Jarraian, egindako ekarpen nagusiak azalduko ditugu, banan-banan, testua idatzi duen taldearen azalpen txiki bat gaineratuta. Horren haritik, albo batera utzi ditugu ekarpenak ez diren iritzi hutsak, eta barne-logika dutenak aukeratu ditugu, proposamena ulertzeko gutxieneko “sinesgarritasuna” bederen badutenak, alegia.

## A- PARTE-HARTZE PRESENTZIALA (TAILERRETATIK ABIATUTA)

### ○ LURRALDE-EREDUA

#### **1. *Euskal Hiria eredua zalantzan jartzen da, ulertzen baita hiriek eta hirientzat prestatutako lurralde-eredua dela.***

Euskal Hiria izena baztertu egin da, nahasmena sortzen zuen eta. “Euskal Hiria Kongresua” ekimenerako soilik geratu da izena. Lurralde-eredua lurraldearekiko errespetuan oinarritzen da, eta lurraldearen kudeaketaren ikuspegi jasangarri batean. Eta, hain zuzen, kokaguneen egituraren ereduaren oinarria oreka eta osagarritasuna da, eta berebiziko garrantzia ematen zaie eremu funtzionalen burutzei eta azpiburutzei.

#### **2. *Gernika-Markina eremu funtzionala bitan banatzea, eta Araba Erdialdea eremu funtzionala banatzea, askotariko ezaugarriak dituen lurraldea delako.***

Zenbait berezitasun sartu dira, bai Gernika-Markina eremu funtzionalerako, bai eta Araba Erdialdea eremu funtzionalerako ere (Araudiko 7. artikulua):

- Gernika-Markinako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren kasuan, oinarritzko hasierako plana egin behar da indarreko Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena idatzi baino lehen, kontuan hartuta, batetik, eremu funtzionala osatzen duten Busturialdea eta Lea-Artibai eskualdeak ongi egituratzearen erronka, eta, bestetik, Urdaibaiko eskualdearen espezifikotasuna, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legetik eratorritako lurralde-tratamendua eskatzen duena.
- Araba Erdialdeari dagokionez, ezartzen da haren barruan Arabako Haranetako eta Arabako Mendialdeko eskualdeak bereizi behar direla, landa-izaera eta problematika espezifikoak dutenez arreta berezia eskatzen dutelako. Ildo horretan, eremu horietan gauzatu beharreko lurralde-ekintza eta Gasteizen abian jarri beharreko ekimenak LAGetan behar bezala koordinatu behar dira, landako eta hiriko eremuen arteko kontrastearen haritik datorren aniztasun hori elkarren artean sendotzeko baliagarria izan dadin. Abantaila horiek aprobetxatu ahal izateko, eremu horiei tratamendu espezifikoak eman behar zaie, aldezturik aipatutako bi landa-eskualdeetarako Oinarritzko Hasierako Plan bat idatziz Araba Erdialdeko LPParen berrikuspena idatzi baino lehen.

#### **3. *Gipuzkoaren lurralde-okupazioaren antzeko eredu bat sustatzea.***

Proposatzen den kokagune-ereduak “Eraldaketa Ardatzak” kontzeptua aintzat hartzen du, eta gune trinkoen lurralde-eredua proposatzen du, baliabideak aprobetxatu eta garraio publikoaren bidez eta beste ibilbide batzuen bidez lotzen direnak. Ikus daitekeenez, Gipuzkoako hainbat haranetako egungo eredua da, gaur egungo kontzeptuak oinarri hartuta berrirakurri eta birdefinitua: mugikortasun jasangarria, iragazkortasun ekologikoa, edota saihezbideak edo zirkulazio alternatibak proposatuz libre geratzen diren hiriguneetako espazio libreak (ekobulebarrak). Araudiaren 11. artikulua.

### ○ ZEHARKAKO GAIAK

**4. Hondakinei dagokienez, birziklatzearen eta hondakinak behar bezala bereiztearen aldeko apustua egitea proposatu da, eta ontzien gehiegizko erabilera saihestu nahi da. Hondakindegiei alternatibak bilatzea, zoru gehiago ez okupatzeko.**

Aurrerapeneko 8.3 puntuan ekonomia zirkularraren alde egiten da, hondakinak balorizatzeke eta ahalik eta gutxien botatzeko.

▪ **GENERO-IKUSPEGIA**

**5. Adinekoak zeharkako gai moduan sartzea**

Lurralde inklusibo bat lortzea LAGen Berrikuspenaren oinarrietako bat da. Hartan, genero-ikuspegiaz haratago doan kontzeptu bat dago: besteak beste, irisgarritasun unibertsalari eta zahartze aktiboari bereziki erreparatuko dion hirigintza-eredu bat jorratu da.

▪ **KLIMA-ALDAKETA**

**6. Energia-iturriak eta energia ekoizteko ereduak aldatu eta ekologikoagoak diren beste batzuk erabiltzea**

Alderdi sektorial bat da, eta LAGetan lurralde-ikuspegitik aztertu da. Ildo horretan, esan behar da energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ardatz nagusietako bi direla, eta Aurrerapenean jasota daudela, 8.2 puntuan.

**7. Hiri-esparruan, iragazgaiztasunak ez du hain handia izan behar**

Hiri-lurra iragazkorra izatea ezinbestekoa da bero-uharteko efekturik edota uholderik ez egoteko, eta erresilientzia handiagoko lurraldea lortzen lagun dezake. Beraz, bat dator beste zenbait kontzepturekin, hala nola azpiegitura berdearekin edota klima-aldaketaren aurkako borrokarekin. Adibide moduan, 6. kapituluan, "Hiri-habitata" deritzon, honela dio irizpide batek: <<Finkatutako hiria iragazkortzeko jardunak sustatzea, horretarako, etxadietan eta bideetan berdeguneak sortuz.>>

**8. Baso-masen kantitatea eta kalitatea hobetzea.**

Dokumentuan ingurumenaren ikuspegia globala da, kontuan hartuta zer zerbitzu ematen dizkigun naturak: ekosistema-zerbitzuak. Horren haritik, aintzat hartzen da baso-masek zer ekarpen egiten dieten pertsonei eta biodibertsitateari, eta, horregatik, haien kantitatea eta kalitatea hobetzearen helburuarekin bat egiten da, Aurrerapeneko 4, 5 eta 7. kapituluetatik ondoriozta daitekeenez.

**9. Mugikortasun-eredua errotik aldatzea, murrizteko eta gutxiago kontsumitzeko.**

Dokumentuan, atal bereizi bat dago mugikortasunerako, 9. kapitulua, eta oinez edota bizikletaz mugitzearen eta garraio publikoa erabiltzearen aldeko apustua egiten da. Baina ez da ahaztu behar hiri-eredua oso lotuta dagoela mugikortasun-ereduarekin, eta horren haritik Aurrerapeneko 6. kapituluan (Hiri-habitata) hainbat alderdiren aldeko apustua egiten da: dentsitatea, erabilera-nahasketa, berroneratzea, berritzea eta birgaitzea. Eta 9. kapituluan proposatutako mugikortasun-ereduaren alde egiten du.

▪ **EUSKARA**

**10. Plangintzan kontuan eduki behar dira euskararen arnasguneak.**

Aurrerapeneko dokumentuak adierazten du EAEko errealitate soziolinguistikoa plangintzan sartu behar dela (Aurrerapeneko 10.4 puntua, Araudiko 35. artikulua).

**11. Neurritz gaineko biztanleria-hazkundeak eragin negatiboa duela euskaran.**

Aurrerapeneko 10.4 puntuak hau dio: <<Arnasgune gisa identifikatutako gune gehienak kolektibitate txikiak dira, landa-osagai sendoa dutenak, eta, oro har, mota guztietako esku-hartzeen aurrean, hirigintza-alorrekoen aurrean esaterako, oso hauskorrak direnak.>> Eta, beraz, <<Euskara biziberritzearen ikuspegitik funtsezkoak badira ere, haietan proposatzen diren esku-hartzeek hainbat faktore bildu behar dituzte, gune horien etorkizuna baldintzatzen dutenak.>>

▪ **LURRALDE-ERLAZIOA**

**12. Europako nazioekin eta hiriekin elkarlanean jardutea (klima-aldaketa, inklusioa eta abar).**

Aurrerapeneko 10.6 puntuan adierazten da Euskadik Europako errotula gisa jardunez duen kokapen estrategikotik abiatuta, garraio- eta komunikazio-sistemetan izandako aurrerapenen haritik sortutako baldintza berriek eta lurraldeen arteko interakzio ekonomiko eta sozialek aukera ematen dutela Europa osoko lurralde-garapeneko estrategia berriak diseinatzeko, EAEko lurraldea eta aldameneko eskualdeak biltzen dituen eremu zabalago batean. Halaber, eremu funtzionalen arteko barneko erlazioa funtsezkoa da lurralde-oreka bermatzeko. Testuinguru horretan, funtsezkoa da lankidetzaz-esparruak sortzea.

**13. Eskualdeen arteko koordinazio handiagoa garraio kolektiboaren arloan**

Aurrerapenean kezka hori aintzat hartu da, hau adierazten baita 10.6 puntuan: <<Parte hartzeko prozesuan egiaztatu ahal izan dugunez, Eremu Funtzionalen arabera lurralde-plangintza egitean beste Eremu Funtzionaletik erlazioak ez dira kontuan hartu, edo, adibidez, garraio publikoaren mugikortasunaren plangintza Lurralde Historikoen arabera konpartimentatu da edo hiriburuetarako irisgarritasunean zentratu da, hiriburuetatik igaro beharra eskatzen ez duen udalerrien arteko mugikortasunaren eskaintza publikoa alde batera utziz. Horrelako gaiak adibidez, lurraldez lurralde planifikatu beharko lirateke, lurraldeari barne-kohesioa emateko ikuspegi bati jarraikiz.>>

○ **PAISAIA**

**14. Ibaiertzak berreskuratu, garbitu eta kontserbatzea**

Illo horretan, hau adierazten da dokumentuko 7.1 puntuan (Araudiko 20. artikulua): <<Ibai-paisaien lehengoratzeko eta kontserbazioa sustatzeko, eraikin itsusgarriak ezabatuz, ur-bazterreko landaredia babestuz, oinezko eta bizikletentzako bide-sarea indartuz eta komunikazioko (zubiak, ibai-portuak edo ontziralekuak), produkzioko (errotak, burdinolak, ur-bazterreko ontziolak), bizitegiko edo aisiako elementuak leheneratuz.>>

**15. Zenbait lekutako kultura-ondarea agerian jartzea, trikuharriak eta dolareak adibidez**

Aurrerapeneko 7.2 puntuan, kultura-ondarearekin lotutako proposamenak garatzen dira, eta haren baitan euskal kultura-ondareerako proposatutako kategoria batean sar daitezke bai trikuharriak bai dolareak.

**16. Etorkizuneko industria-erabilerek ez ekartzea lurralde gehiagoren kontsumoa.**

Aurrerapeneko 6.4 puntuan adierazten den bezala, ezinbestekoa da industria-lurzoruetan esku-hartzea, berritzeko, erreformatzeko, birgaitzeko, birdentsifikatzeko edo, azken batean, balioa emateko, ekonomia-jarduerarekin lotuta erabiltzearen. Beraz, lurralde berriak lurzoru gehiago behar duten jardueretarako erabiliko dira, edo industria-lurzoru moduan kalifikatutakoetan instalatu ezin diren jardueretarako.

**17. Paisaia-eredua eredu ekonomikoarekin lotuta dago.**

Pertsonok lurraldean uzten dugun aztarna, hein handi batean, hartan egindako jardueren adierazle da, baita jarduera ekonomikoena ere.

**18. Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruen babesa.**

Gaitasun agrologiko handieneko lurzoruak babestuta daude, neurri handi batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren bidez, zeina irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko (2014ko urriaren 17ko EHAA).

**19. Elektrizitatea- eta telefonia-dorreen ikusizko efektua murrizteko beharra.**

Ildo horretan, hau adierazten da dokumentuko 7.1 puntuan (Araudiko 20. artikulua): <<Paisaian eragina izan dezaketen azpiegitura, obra eta jarduera guztien oinarritzko baldintzak betetzen direla bermatzea, ingurunea ebaluatzeke tresnen edo paisaia integratzeko azterlanen bitartez.>>

**20. Paisaiaren eginkizuna ekoizpen ekonomikoan, aisialditik harago.**

Dokumentuko 7.1 puntuan hau adierazten da: <<EAEko paisaia oso aberatsa eta askotarikoa da, eta ingurumenaren, kulturaren, gizartearen, historiaren eta ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, guztion intereseko ondare eta baliabideztat hartzen da.>>

**21. Paisaiaren garrantzia, ikusten, entzuten eta sentitzen dugun moduan.**

7.1 puntuan, paisaiaren arloko helburuen artean, hau sartzen da: <<Mota guztietako paisaia-inpaktuak (ikusmenari, entzumenari edo usaimenari kalte egiten diotenak) saihestea eta lurraldean garatzen diren elementu eta jarduerak integratzea, batik bat azpiegiturak eta jarduera ekonomikoko eremuak.>>

○ **INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA**

▪ **INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA**

**22. LAGak, tresna moduan, lotesleak ez diren sentsazioa dago, eta, horrenbestez, gomendio huts moduan geratzeko arriskua.**

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak (8. artikulua) adierazten du LAG guztiak lotesleak direla. Aurrerapenari begira, ahalegin handia egin da zehazteko zenbateraino diren lotesleak gidalerroak: nahitaez bete beharrekoak, edota proposatze eraginkortasunekoak (ez badira betetzen arrazoitu egin beharko da zergatik). Aurrerapeneko 11.5 puntua Araudia da.

**23. Matrizea zabaldu egin beharko litzateke erabilera gehiago hartzeko, eta egungoen definizio zabalagoa eta zehatzagoa egin beharko litzateke.**

Parte-hartzean jasotako ekarpenetan oinarrituta, gehiago definitu dira erabilerak eta eguneratzeko ahalegina egin da. Gogorarazi behar da, gainera, erabileretako asko Lurralde Plan Sektorialak garatzen dituela. Erabilerak 4.1 puntuan definitzen dira, Ingurune Fisikoaren Antolamendua izenekoan. Beste alde batetik, matrizean azaltzen ez diren erabilerak ez dute

matrizea baliogabetzen. Egokitzen diren ala ez erabakitzeko, antzeko inpaktuko beste erabilera batzuekin alderatu behar dira.

***24. Bermatu behar da lurzoru urbanizaezinean nekazaritza eta abeltzaintzako etxebizitzak jarduera horretarako erabiltzen direla.***

Berrikuspenean, 1997ko LAGen ekarpen garrantzitsuenetako bat adieraziz jasotzen da espresuki debekatzea lurzoru urbanizaezinean isolatutako etxebizitzak eraikuntza, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiari mugatutakoa izan ezik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoari jarraituz (Berrikuspenaren Aurrerapeneko 4.1 puntua).

***25. Zuhaitz autoktonoak eta baso mistoa landatzea Aurrerapenaren helburuetako batzuk sendotzen dituzten ekintzak dira; esaterako, klima-aldaketaren aurkako borroka, natura-ondarearen kontserbazioa, lur-irristatzeen prebentzioa, ekosistemen zerbitzuak indartzea eta abar.***

Zuhaitz autoktonoak eta baso mistoa landatzea Aurrerapenaren helburuetako batzuk sendotzen dituzten ekintzak dira; esaterako, klima-aldaketaren aurkako borroka, natura-ondarearen kontserbazioa, lur-irristatzeen prebentzioa, ekosistemen zerbitzuak indartzea eta abar.

***26. Lurzoru urbanizaezin gehiago ez okupatzea.***

Ingurune fisikoaren antolamenduari buruzko atalean (4.1 puntua), Berrikuspenak ezartzen du lurzoru urbanizaezina haren berezko erabilerek soilik okupatuko dutela, edo hartan egin beharrekoek. Horrenbestez, eraikuntza-erabilerak debekatuta daude oro har, eta, bereziki, aurretik dauden guneeetan oinarrituta ez dauden hirigintza-hazkundeak eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiari lotuta ez dagoen etxebizitza isolatua (EAEko ingurune fisikoaren antolamenduaren matrizea Araudiari erantsi zaio eranskin moduan, eta nahitaez bete beharreko alderdia da).

***27. Oraindik formalizatu gabe dauden LPPak garatzen amaitzea.***

Parte-hartzetik eta oraindik onartu gabe dauden LPPen egoeraren azterketatik abiatuta, Aurrerapenak LPP hauek garatu behar direla ezartzen du: Harrobi Zonetarako LPS, Kultura Ondarearen LPS, Baliabide Turistikoen LPS, Energia Berriztagarrien LPS eta EAEko Hondakinen Azpiegituren LPS. Horrez gain, Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa Eskuratzeko LPS eta Energia Eolikoaren LPS berraztertuko dira.

▪ **AZPIEGITURA BERDE INTEGRATUA ETA EKOSISTEMEN ZERBITZUAK**

***28. Azpiegitura berde bihur daitezkeen espazioak zerrendatzea.***

Aurrerapeneko 4.2 puntuan, taula batean adierazten dira azpiegitura berde bihur daitezkeen elementuak, orientabide moduan. Horren haritik, garrantzitsuena da elementuek azpiegitura berdeen irizpideak betetzea, atal horretan ematen den definizioari jarraituz: sare moduan antolatuta egotea, ekosistemei zerbitzua ematea eta abar.

***29. Intereseko eremuak zabaltzea, Gorbeiaz gain beste batzuk ere haren barruan garatzeko, hala nola Urkiola, Bikotxgane eta Mandoia.***

Aurrerapenean identifikatutako natura-elementuak EAE osorako garrantzitsuak direnak dira, "EAEko Azpiegitura Berdea" multzoan sartzen dira eta 1. eranskinean adierazita daude. Hortik abiatuta, eremu funtzionaleko LPP bakoitzak —eremu funtzionalaren mailan— eta, gero, udalerrri bakoitzak sare hori garatuko dute, tokian tokiko ezaugarrien eskalara egokitu arte.

**30. Vasco-Navarro tren izandakoaren trenbidea korridore berde moduan berreskuratzea proposatzen da, eta meategietako trenbideak izandako lurberdintzeak erabiltzea. Horren bidez, zenbait eremu korridore berdeen bidez lotzeko aukera izango da; adibidez, Enkarterriak Bilbo Metropolitanoarekin.**

Hau dio Aurrerapenak 9.2 atalean: <<Lehengo trenbideek aukera handiak eskaintzen dituzte oinezko eta bizikleten bide berdeak izateko, irisgarritasunagatik, malda leunen erosotasunagatik eta jarraitutasunagatik, eta horregatik aprobetxatu behar dira oinezko eta bizikletetarako bide berriak egiteko.>>

**31. Eratzun berdeak aldirietan soilik ez egotea eta hirian eta hiri-bilbean txertatzea eta auzoen arteko konexioak garatzea.**

Azpiegitura berdea kontzeptuak sare bat biltzen du, EAEko eskalatik hiriguneetaraino garatzen doana.

#### ▪ ESPAZIO NATURAL BABESTUAK

**32. KBE-BBE-Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPS bateratzea, babestutako parkeen eta Kontserbazio Bereziko Eremuen lurralde-eremuak bat etortzeko.**

Horren haritik, hau dio Aurrerapenak 4.2 atalean: <<Figura horietako zenbait espazio fisiko berean gainjartzen dira. Horregatik, guztizko azalerak ez dira ezinbestean azalera edo ehuneko “desberdinei” buruzkoak, baizik eta ingurumen-babeseko figuraren bat duten hektareei buruzkoak (berdinak izan ala ez). Dena den, espazio bereko babes-figurak koordinatzeak baino gehiago, figura bakarrean sartzeak izan behar du etorkizunerako joera.>>

#### ▪ KORRIDORE EKOLOGIKOAK

**33. Korridore ekologikoen arteko lotura fisikoak sortu eta babestea.**

Korridore ekologikoek ingurumen-balioko espazioak lotzen dituzte. LAGak berrikusteko Aurrerapenak lurralde-plangintzan sartzen ditu, espazioen arteko jarraitutasun ekologikoa bermatzeko azpiegitura berdearen atal moduan.

**34. Hiriguneetako berdeguneen eta hiriguneaz kanpoko berdeguneen arteko konektibitatea sustatzea.**

Hiriguneetako berdeguneen eta hiriguneaz kanpoko berdeguneen arteko konektibitatea udaleko plangintza orokorretan garatu behar da. Eta hala adierazten da 4.2 ataleko gidalerroetan: <<Hirigintza-plangintzak (...) Eremu Funtzionaleko azpiegitura berdearekin eta EAEn azpiegitura berdearekin konektatutako tokiko azpiegitura berdea bilduko du, azken horren zati gisa hartuta tokian tokian espazio libre eta berdeguneen sistema orokor eta tokian tokikotzat kalifikatutako espazioak, eta aplikatzekoak izango zaizkie ekosistemen zerbitzuen jarraitutasuneko, zaintzako eta errefortzuko printzipioak.>>

**35. Gorbeia eta Galdames arteko korridorearen jarraitutasuna zalantzan jartzen da, bereziki Laudio eta Okondo arteko eremuan.**

2016. urtean, EAEko korridore ekologikoak zehazteko lana egin da, eta horren ondorioz eguneratu egin da 2005. urtekoa (Oinarrizko Dokumentuan aintzat hartzen zena). Lan horrek,

gainera, jarraitutasun ekologikoak plangintza-eskala bakoitzean (EAE, eremu funtzionala, udalerria) zenbateko zehaztasunez adierazi behar diren definitzen lagundu du.

**36. Lurraldea eteten duten sare berririk ez egiteko beharra.**

Aurrerapeneko dokumentuak bi ildotan lantzen du gai hori: alde batetik, sare berrien beharra murriztea (berroneratzea, dentsifikatzea, lur berriak ez okupatzea, egungo sareak hobetu eta zabaltzea); eta, beste batetik, ikustea azpiegitura “gris” batek zer lekutan jartzen duen arriskuan jarraitutasun ekologikoa, zatitzeak murrizteko neurriak hartzeko.

**37. Degradatutako eremuak berroneratzen saiatzea, eta ordezkaturako elementuak (zaharkitutako errepideak eta azpiegiturak) berreskuratzeko edo kentzeko lanak sartzeara. Horrez gain, haranetako gune estuetan tunel faltsuak edo antzeko konponbideak egitea.**

2016. urtean, azpiegitura “grisek” jarraitutasun ekologiko garrantzitsuak arriskuan jartzen dituzten puntuak identifikatu dira. LPPEk berraztertu egingo dute identifikazio hori, eta elkarrekintza horiek kudeatzeko neurriak ezarriko dira.

**38. Korridore ekologikoek naturagune babestuen antzeko araudia izatea.**

LAGen berrikuspenaren bidez, korridore ekologikoak plangintzan sartzen dira. Horrenbestez, Lurralde Plan Partzialek eta HAPNek planetan adierazi behar dituzte korridoreak, eta haietan egin daitezkeen erabilerak arautu, ez jartzeko arriskuan korridoreen eginkizuna, hots, jarraitutasun ekologikoa.

○ **LANDA-INGURUNEA**

**39. Ahalegina egitea hiri-zerbitzuak emateko, hiri-ingurunearen eta landa-ingurunearen zerbitzu-desorekari aurre egiteko.**

Aurrerapeneko 5. kapituluari, “Landa-habitata” izenekoan, erantzuna eman nahi zaio kezka horri. Hain zuzen, kapituluari ezarritakoen artean, hau dago: <<Landa-inguruneak hiri-ingurunearen maila bera izango duela bermatzea, bereziki ekipamendu eta zerbitzu publikoen erabilgarritasunari dagokionez.>>

**40. Landa-ingurunea kudeatzen duten pertsonak gehiago balioestea.**

Aurrerapenak, 5. kapituluari, “Landa-habitata” izenekoan, Landa Garapeneko Planaren (LGP) helburuak jasotzen ditu. Eta Landa Garapeneko Planak lortu nahi dituen funtsezko ildoen arteko beste bat euskal nekazaritza-sektorean gazteak sartzeko eta atxikitzeak aukera bultzatzea da, jarduera garatzeko planteamendu batetik eta gainerako euskal herritarrek dauzkatenekin homologarriak diren bizi-baldintzekin. Era berean, adierazi beharra dago Programak modu nabarmenean egiten duela ageriko emakumeek ingurune horretan duten rola; izan ere, 2009ko nekazaritza-eroldaren arabera, emakumeek zuzentzen dituzte ustategien % 30.

**41. Gogoratzea landa-ingurunea dela lurraldearen azalera gehien hartzen duena.**

Dokumentuko 4. kapituluari gogoratzen da EAEren lurraldearen % 93 baino gehiago urbanizatuta ez dagoen lurra eta azpiegitura “grisak” ez dituen lurra dela. Beste alde batetik, 5. kapituluari, “Landa-habitata” izenekoan, hau adierazten da: <<EAEko udalerrien erdia baino gehiago landa-udalerria dira eta erkidegoaren azalaren % 70 hartzen dute, landagune horietan biztanleriaren % 8 soilik bizi bada ere.>>

**42. Landa-inguruneko biztanleria galtzea Gernika-Markina eremu funtzionalean.**

Egia da landa-habitatego berezko erabilerak uzten ari direla, eta horrek, besteak beste lurraldea hondatzea eta nortasun gutxiagoko paisaiak sortze dakarrela. Gernika-Markinako kasu zehatza hari dagokion LPPan landu beharko da.

**43. Baserriak zatitzeko eta baserriak eraberritzeko aukerak malguagoak izateko premia.**

Hau dio Aurrerapenak 4. kapituluan: <<Lurzoru urbanizaezinean dauden baserriek beren egungo morfologia atxiki beharko lukete. Egungo ondare arkitektonikoa aprobetxatzearen mesedetan, zatiketa horizontala ahalbidetuko da etxebizitza kopuru handiago batean, egungo etxebizitzaren kopurua ez bikoiztea iradokita, baserri bakoitzeko lau etxebizitzaren kopurua ezein kasutan ere gainditu gabe. Era berean, bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak gaineratzea proposatzen da (ekipamendua, turismo- eta ostalaritza arloko jarduera, tertziarioa).>>

**44. Garraio publikoa hobetzea.**

Landa-ingurunean bizi diren pertsonen mugikortasuna garraio publikoaren bidez hobetzeak ez du albo batera utzi behar ahalik eta efizientziarik handiena lortzea. Horregatik, eskatu ahalako garraio-zerbitzua etorkizunean kontuan eduki beharreko gaia da, landa-habitatego gidalerroetako batean adierazten den bezala: <<Garraio publikoko edota eskatu ahalako garraio-zerbitzuen sarea hobetzea.>>

**45. Belaunaldien arteko erreleboa erraztea, landa-inguruneko despoblazioari aurre egiteko.**

Gorago adierazi denez, Aurrerapenak, 5. kapituluan, "Landa-habitata" izenekoan, Landa Garapeneko Planaren funtsezko ildoetako bat jasotzen du: euskal nekazaritza-sektorean gazteak sartzeko eta atxikitze aukera bultzatzea, jarduera garatzeko planteamendu batetik eta gainerako euskal herritarrek dauzkatenekin homologarriak diren bizi-baldintzekin.

**46. Nekazaritza-sektoreari balioa ematea eta funtsezko sektore ekonomikotzat jotzea, lurraldearen kudeaketan duen eginkizuna kontuan hartuta.**

Hara zer dioen Aurrerapenak 5. kapituluan: <<Bizimodu propio eta jatorrizko baten garapen-esparrua izan da euskal landa-habitata, eta gure gizartearen funtsezko ezaugarrien babesleku bihurtu da neurri handi batean, hiri-kulturaren uniformizazio gero eta handiagoaren aurrean. Landa-espazioak balio handiko ondarea biltzen du, ez bakarrik arlo sozial, kultural edo ekonomikoan, baita baliabide natural, paisajistiko edo ingurumen-arlokoen kudeaketaren arloan ere, euskal landa-gizarte eta -inguruak eutsi baitio kudeaketa horri, ehuneko oso handi batean. Espazio hori konfiguratu eta eusteko oinarritzko elementua nekazaritza-espazioen kudeaketa aktiboa da eta izan da. Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreek funtsezko eginkizuna dute lurralde-antolamendu erresiliente eta jasangarrian.>>

**47. Tokiko produktuen ekoizpena, kontsumoa eta eskaria sustatzea.**

Landa-ingurunearen aukeretako bat tokiko produktuei balio handiagoa ematea dela aitortzen du Aurrerapenak, landa-arloaren eta hiri-arloaren arteko inbrikazio sendoak lagunduta. Hau dio dokumentuak: <<... ezagutzen dugun euskal landagunea zuzenean lotuta dago nekazaritza-enplegua atxikitze eta sustatzeko ekimenen babes irmoari; oinarritzko elementu horretatik abiatuta landa-ingurunea dinamizatzeko eta biziberritzeko aukeren sorta artikula daiteke, hala

*nola tokian tokiko baliabideen balioztatzea, nekazaritza- eta artisautza-dibertsifikazioko proiektuak, ekimen turistikoak edo landa-ingurunerako zerbitzuak.>>*

**48. Azpiegitura turistikoak gara daitezen errazteak onurak dakartza.**

47. ekarpenean adierazitako berbera adierazten da hemen.

**49. Nekazaritza-zorua babestea.**

Zorua, oro har, ondasun urria da EAEn, eta, horrenbestez, babestu beharrekoa da. Eta, hain zuzen, nekazaritza-lurak zorrotz araututa daude Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSan (irailaren 16ko 177/2014 Dekretu bidez onartu zen. 2014ko urriaren 17ko EHAA).

**50. Landa-ingurunean, birgaitzea eta dentsifikatzea sustatzea, eraikuntza berriak egin beharrean.**

Eraikuntza-erabilerak, oro har, debekatuta daude lur urbanizaezinean, nekazaritza-ustategiari lotutako isolatutako etxebizitza izan ezik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako moduan. Landaguneetan, Aurrerapenak hau ezartzen du: <<... *eraikuntza berrien bizitegi-erabilera nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiari lotuta familia bakarreko etxebizitzarena izan beharko luke lehentasunez. Landaguneen jatorrizko morfologia gorde beharko da, batez ere espazio publikoaren trinkotasunari eta definizioari dagokionez, eraikuntza berriarekin eraikuntza-kontzentrazioarako joera erakutsiz, betiere biltzen dituen eta izaera ematen dien espazio publikoaren inguruan kontzentratuta.* >>

○ **HIRIGUNEA**

**51. Ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna.**

Aurrerapenean ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna murriztea proposatzen da, batetik berroneratzea, berritzea eta birgaitzea, dentsifikatzea eta erabileren nahasketa sustatuz, eta bestetik mugikortasun-alternatibak proposatuz, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna, eta garraio publikoa, adibidez.

▪ **HIRI-BIRGAITZEA ETA -BERRONERATZEA**

**52. Etxebizitza-parkea ordeztzea edo birgaitzea sustatzea, zabaldu beharrean egungo plangintzak egiten duen moduan; eraikigarritasunean dentsitate handiagoa ezartzeko beharra; eta hiri-birgaitzea eta -leheneratzea sustatzea, eraikuntza berriaren eta lur berria okupatzearen kaltetan.**

Eraikigarritasunak parametro optimo batzuen artean egon behar du, hiri-dentsitatea, erabilera-nahasketa eta trinkotasuna izateko, baina gehiegizko pilaketa eragin gabe, betiere. Beste alde batetik, Aurrerapenean argi eta garbi egiten da hiri-birgaitzearen, -eraberritzearen eta -leheneratzearen alde, urbanizatuz lur berriak okupatzearen kaltetan.

**53. Espazio publikoa eta hiriguneetako berdeguneak bereziki zaintzearen beharra; erabilera-nahasketa sustatzea hiri-ingurunean; industria-paisaia berreskuratu eta berroneratzea.**

Ekarpenean adierazitako alderdi guztiak Aurrerapeneko dokumentuan lantzen dira, modu batean edo bestean. Zehazki erabilera-nahasketa erraztea eta industria-paisaia berreskuratu eta berroneratzea funtsezko bi gai dira berrikuspenean.

**54. Eraikinak hobetzea, haien energia-eraginkortasuna hobetzeko; irisgarritasun-irizpideak kontuan izatea.**

Hau dio Aurrerapenak 6. kapituluan: <<eraikitako parkearen zati handi batek zaharkitze-maila handia du irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzei, segurtasunari, instalazioei edo ingurutzailen ezaugarri teknikoei dagokionez. Horri dagokionez, jardun nagusiek etxebizitzak birgaitzeari eta hiri berroneratzeko jardunei bultzada ematearekin lotuta egon behar dute, hala nola eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea eta mugikortasun urriko pertsonen erabiltzeko moldatzea; halaber, eraikinen inguruko hiri-ingurunearen eta eraikinen beren irisgarritasun-baldintzak ere egokitu behar dira, txertatzen diren hiri-ingurunearen testuinguruan.>>

**55. Hiri-dentsitate handiagoa lortu behar den arren, beharrezkoa da mugak jartzea.**

Gorago adierazten den bezala, eraikigarritasunak parametro optimo batzuen artean egon behar du, hiri-dentsitatea, erabilera-nahasketa eta trinkotasuna izateko, baina gehiegizko pilaketa eragin gabe, betiere.

▪ **LURRALDEAREN IRAUNKORTASUNA JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUAN**

**56. Eskura dagoen lurzorua berroneratzea sustatzea.**

Hiri-birgaitzea, -eraberritzea eta -leheneratzea printzipio gidariak dira dokumentu osoan, eta bereziki adierazita daude 6. kapituluan, "Hiri-habitata" deritzon. Adibidez, jarduera ekonomikoei dagokionez, hau da lehen helburua: <<Lehendik dagoen lurzoru industrialari balioa ematea, hutsik dauden industria-pabilioiak birgaitu eta berreraikitzea, eta lankidetzako publiko-pribatuko estrategiak diseinatzea lurzoru industrialen urbanizazioaren kontserbazioa sustatzearren.>>

**57. Merkataritza, industria eta bizitegi-erabilera mistoak bilatzea.**

Erabilera mistoak funtsezkoak dira familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko, joan-etorriak murrizteko eta hiri biziagoak lortzeko. Orobat, LAGen Berrikuspenaren beste helburu asko lortzen laguntzen duen alderdia da.

**58. Herri bakoitzean industrialde bat egon beharrik ez izateko, industrientzako eta industrialdeak jartzeko kokapenak partekatzea eskualdean, eta tresna berrien (Internet, IKTak...) erabilera sustatzea jarduera ekonomikoak errazteko eta sustatzeko.**

Industria-lurzoruaren eskualdekako kudeaketa egiten du jada Jarduera Ekonomikoetarako LPSak eta horrela jokatzeko dute, halaber, administrazio sustatzaileek. Lurralde-antolamenduak espazioen osagarritasunaren alde egiten du, lurzorua erabilera intentsiboagoa eta eraginkorragoa izateko. Bestalde, Aurrerapenean, helburu moduan, hau jasotzen da: <<Goi-mailako teknologiei lotutako espazio berriak hiri-berrikuntzako eta -berroneratzeko ekimenekin uztartzea, landa-ingurunean sakabanatuta gera daitezkeen saihesteko, eta jarduera berritzaileen parkeak sortzea, kanpoko konektibitate-nodoekin edo unibertsitate-zentroekin lotuta.>>

**59. Industria-eremuak eskualde-ekalan planifikatzeko beharra.**

Aurreko puntuan adierazi den bezala, industria-lurzoruaren eskualde-kudeaketa egiten du jada Jarduera Ekonomikoetarako LPSan, eta hala egiten dute administrazio sustatzaileek ere.

Halaber, lurraldearen antolamenduaren apustueta bat lurzoruaren erabilera intentsiboagoa eta eraginkorragoa izatea da.

**60. Kontu handiz egitea aldirietako industria-erabileratik merkataritza-erabilerarako aldaketa eta kontuz jardutea merkataritza- eta industria-azalera handiak ezartzean eta haiek zabaltzean.**

Bat egiten dugu, erabat, kezka horrekin. Horrexegatik, berrikusten ari da Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako LPS, nolabait arautzeko lurzoruaren kontsumoa eta hirietatik kanpoko merkataritza-erabileren ugaritzea, eta halakoak mugatzea arrazoitzeko lurralde- eta ingurumen-arrazoietan oinarrituta.

**61. Lantokia eta bizilekua elkarrengandik hurbil egotea, joan-etorriak ahalik eta txikienak izateko.**

Goian adierazi den bezala, erabilera mistoak funtsezkoak dira familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko, joan-etorriak murrizteko eta hiri biziagoak lortzeko.

**62. Eskualdeko estrategiak.**

Ekarpen horri buruzko iritzia 57. eta 58. erantzunen bidez emanda dagoela deritzogu. Oro har, LAGek eremu funtzionaletan egiten duen banaketak kezka horri erantzuten dio.

▪ **HIRI-HAZKUNDEKO PERIMETROA**

**63. Hazkunde mugatuagoa izateko edo hazkunderik ez izateko proposamena.**

Uste dugu hazkunde mugatua Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako eraikigarritasun-mugen bidez eta LAGek adierazitako bizitegi-kuantifikazioaren bidez lortzen dela. Gainera, hiri-hazkundeko perimetroa irudia sartzen da, hazkunde neurrigabeak eta egungo hiri-bilbetik kanpokoak eragozteko, bai eta eremu desegokietakoak ere.

**64. Lurzoru gehiago ez artifizialtzea, eta egungoa berrerabiltzea.**

Lurzoru gehiago ez artifizialtzeak hirigintzako esku-hartze ororen lehen aukera izan behar du (eta horrela adierazten da Berrikuspenaren Aurrerapenean). Dena den, zenbait kasutan beharrezkoa da lurzoru berria okupatzea. Horregatik, nahitaez bete beharreko muga bat ezarri da, hiri-hazkundeko perimetroa, hain zuzen.

**65. Hiri-lurzoruari mugak jartzea, hiri-hazkundeko perimetroa kasu, eta hirigune konpaktuak sustatzea.**

Hiri-hazkundeko perimetroa LAGen berrikuspenak hiri-hazkundera mugatzeko proposatzen duen tresnetako bat da, eta Aurrerapeneko 6.3 puntuan lantzen da. Bestalde, hirigune konpaktuak sustatzea bat dator dokumentuak, besteak beste, proposatzen duen hiri-berroneratzearekin, -birgaitzearekin eta -berritzearekin.

**66. Etxebizitza hutsa sartzeta.**

Etxebizitza hutsak bi modutan sartzen dira bizitegi-kuantifikazioaren formulari: batetik, etxebizitza huts "tekniko" bat hartzen da kontuan, udalerrian beharrezkoa dena eta beti egon izan dena (salerosketak, mugimenduak eta abar direla eta); bestetik, jotzen da etxebizitza hutsen kuantifikazioa etxebizitza-parkearen % 2 izango dela, gutxienez.

**67. Lurzoru urbanizagarri garatu gabea desklassifikatzen laguntzea.**

Uste dugu Aurrerapenean jasotako bizitegi-kuantifikazioak eta hiri-hazkundeko perimetrao kontzeptuak tresnak ematen dizkietela eta lagundu egiten dietela udalerriei lurzoru urbanizagarri garatu gabea desklasifikatzeko, lurzoru hori izapidetzen ari ez bada, bereziki.

**68. Ez litzateke ezarri beharko gutxieneko etxebizitza-kopuru bat.**

Berrikuspenaren Aurrerapenean ezabatu egin da gutxieneko etxebizitza-kopurua bizitegi-kuantifikaziotik.

**69. Ez da kontuan hartzen eremu funtzional bakoitzaren errealitatea.**

Eremu funtzional bakoitzaren errealitatea bizitegi-kuantifikazioan “Lurralde-ereduaren osagaia” tresnaren bidez edukitzen da kontuan. Eta hori dagokion LPPak modulatu du, bere eremu funtzionalaren errealitatea kontuan hartuta.

**70. Neurriak hartzea harrotzea minimizatzeko, uste baita koefizientea jasangarritasun-printzipioaren kontrakoa dela.**

Bizitegi-kuantifikazioan, harrotze-koefizientea udalerriaren neurriaren arabera modulatuak faktore bat da, prozesuaren berezko zurruntasuna eta ziurgabetasunak konpentsatzen saiatzeko: planak izapidetzea, bizitegi-mugimenduak eta abar. Beharrezkoa den faktoretzat jotzen da, uste baita kendu egiten bada formulak ez liekeela erantzungo ez aldagai guztiei ez hautemandako portaerari.

▪ **METROPOLI EREMUAK ETA ERALDAKETA ARDATZAK**

**71. Hiri-erabileren nahasketa erraztea.**

Goian adierazi den bezala, erabilera mistoak funtsezkoak dira familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko, joan-etorriak murrizteko eta hiri biziagoak lortzeko.

**72. Ez oinarritzea sustapen pribatueta soilik, eta sustapen publikoa sustatzea.**

Etxebizitzaren sustapen publikoa legez araututa dago, eta LAGen irismenetik kanpo dago.

**73. Lurralde urbanizatu jarraituaren orde, gune trinkoetan biltzea eta gune horiek garraio publiko bidez lotzea**

Gorago azaldu den moduan, “Eraldaketa Ardatzak” kontzeptuaren bidez proposatzen den kokagune-eredua modu linealean kokatutako gune trinkoen lurralde-eredua da, baliabideak aprobetxatu eta garraio publikoaren bidez eta beste ibilbide batzuen bidez lotutakoak.

▪ **BIGARREN ETXEBIZITZA ETA BALIABIDE TURISTIKOAK**

**74. Turismoaren arloan egindako jardueren abiapuntuak izan beharko luke eskualdeko baliabide naturalak, nekazaritzakoak, kulturalak eta nortasunaren arlokoak sendotzea eta balioan jartzea.**

Aurrerapenaren dokumentuak Turismoa izeneko kapituluari adierazten duen moduan (7.4 atala), <<helburua zera da, lurralde-bikaintasuna Euskal Autonomia Erkidegoaren nortasun-ezaugarrietako bat izatea, bizi-kalitatearen funtsezko faktore eta iraunkortasun-estrategiaren oinarritzako osagai, lurralde erakargarri eta askotarikoa eratzeko askotariko zerbitzuen eskaintza duela, kalitatezko ingurumen-ingurunea duela eta hiri-espazio bereziak ere badituela.>>

**75. Eredu turistikoak lurraldearen baliabideetara egokitu behar du.**

Bat gatoz horrekin bete-betean, eta horrela adierazi nahi izan da Aurrerapenean (7.4 atala)

#### ▪ PLANGINTZEN BATERAGARRITASUNA

##### **76. Elkarren hurbil dauden herrien artean baterako plangintza egiteko beharra.**

Mugakide diren lurraldeen eta udalerrien baterako plangintzak aukerak dakarzkie, gatazkak konpontzetik harago, orain arte hala ulertu izan bada ere. Ikuspegi berri hori Aurrerapeneko 6.6 atalean lantzen da.

##### **77. Zeharkakotasun handiagoa, toki-, foru- eta erkidego-administrazioen artean.**

Aurrerapeneko dokumentuan jasotzen da gehiago aprobetxatu behar dela lurralde-antolamenduaren arloan udalak, foru-aldundiek eta erkidegoko administrazioak ordezkaritza duen organoa (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea). Horren haritik, Gobernantza kapituluak (11. kapituluak), jarraibide hau sartu da: <<Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean zein Lurralde Politikarako Aholku Batzordean, lurralde-antolamenduko tresnak (LAG, LPP, LPS) hartzeko eta haien jarraipena egiteko ponentzia tekniko espezifikoak sortzea.>>

#### ○ MUGIKORTASUN JASANGARRIA

##### **78. Eragindako mugikortasunaz eta haren eraginez ohartaraztea, eta ez gomendatzea automobilaren erabilera sorrarazten duten azpiegiturak (merkataritza-guneak, industriagunea, kiroldegia...).**

Mugikortasunaren arloan proposatzen den lehen neurria hiri dentsagoak, trinkoagoak eta erabilera-nahasketa dutenak planifikatzea da; joan-etorriak ahalik eta gehien murrizteko aukera ematen dutenak, alegia. Horren haritik, hirietan merkataritza eta jarduera ekonomikoak sustatzea proposatzen da.

##### **79. Telelana eta bizilekutik gertuko lana sustatzea.**

Telelana 1997ko LAGetan adierazita zegoen neurrietako bat da, eta teknologia berriei esker ezartzen ari da. Bizilekutik gertuko lana erraztea erabilera-nahasketarekin lotuta dago, eta funtsezko faktorea da kalitatezko hiri konplexuak lortzeko, LAGen Berrikuspenak proposatzen duen moduan. Aurrerapeneko 11. kapituluak ezartzen den moduan, hau da helburu nagusietako bat: <<Mugikortasun-premiak murriztea, bizitzeko, lan egiteko, zaintzeko, aisiako eta ekipamenduetako guneen artean erlazio egokiago bat ezarri.>>

#### ▪ OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN MUGIKORTASUNA

##### **80. Ongi funtzionatzen duen eta lotura onak dituen bidegorri-sare bat egiteko beharra.**

Helburua hiriguneetako mugikortasun modu nagusia oro har motorizatu gabeko mugikortasuna eta bereziki bizikleta bidezkoa sustatzea da, garraio publiko multimodal eta eraginkor batekin batera. Hara zer dioen 9. kapituluak jarraibideetako batean: <<Bizikleta-sare seguru, koherente, irisgarri eta jarraitua ahalbidetzea, bide-etenik gabea eta ulertzeko erraza, bizikletaren erabilera sustatzeko bide laburrenak bilatuko dituen, gehiegizko maldak eta ibilgailuen eta oinezkoen trafikoekiko interferentziak saihestuko dituen eta muturreko klima-baldintzetatik babespean geratuko dena.>>

##### **81. Eguneroko bizitzan bizikleta erabiltzeko bidea eman behar du plangintzak.**

Aurreko puntuan adierazitako berbera dugu esateko. 9. kapitulu horrek berak hau dio helburuetako batean: <<Oinezko eta bizikleten mugikortasuna aisialdiaz haratago sustatzea, garraio publikoa den heinean, eguneroko erabilera erraztuz eta egungo garraiobide-banaketa eraginez, segurtasun-, erosotasun- eta konektibitate-irizpideetan oinarrituta.>>

**82. Herrien arteko bideak eta bidezidorrak berreskuratu eta mantentzea, eskualdeko bide-sareak sortzeko.**

Gidalerroen dokumentuak EAEko zenbait bide ezartzen ditu. Eremu-funtzionaleko eskalan bide horiek garatzeko aukera izango da, eskualdeko bide-sare bat proposatzeko. Eta, hain zuzen, 9. kapituluko jarraibideek adierazten dutenez, <<Lurralde Plangintzak honako hauek bete beharko ditu: (...) LPPetan, EAEko Bizikletentzako Ibilbideei eta oinezkoentzako ibilbideei buruzko Plan Zuzentzailea garatzea Eremu Funtzionalaren mailan, guneen arteko konexio-sarea sortuz.>>

**83. Txirrindularien eta oinezkoen segurtasuna bermatzea.**

Garraiobide-sare segurua sortzea da LAGen Aurrerapenean mugikortasunaren arloan jasotzen den oinarritzko helburuetako bat.

▪ **BIDE-MUGIKORTASUNA**

**84. Gaur egungo azpiegiturak modernizatu eta egokitu behar dira, berriak egin aurretik.**

Aurrerapenean, 9.3 atalean ("Bide-mugikortasuna") hau ezartzen da: <<Hasi gaitezke esaten EAEko errepideen mapa gehienbat amaituta dagoela, bazter uzten baditugu trazatuen hobekuntza, herriko errepide-saihesbideren baten egikaritzapena eta ezinbesteko mantentze-lanak.>>

▪ **TRENBIDE-, PORTU-, ETA AIREPORTU-MUGIKORTASUNA**

**85. Aireportuek espezializatu egin beharko lukete.**

Aireportuak LAGen irismenetik harago doazen sektore-eskumenekoak dira. Dena den, lurraldean eragina dutenez, hau adierazten da LAGetan: <<Aireportuei dagokienez "Euskal Aireportu Sistemaren" kontzeptuak eta EAEko aireportu guztiak osagarritasun eta espezializazio-irizpideei jarraikiz antolatu beharrak, ikuspegi globalari jarraikiz eta inguruneke aireportuekin integratuz, indarrean segitzen dute bete-betean.>>

**86. AHTaren proiektua bertan behera uzteko alde dagoen jende asko dago. Portu- eta aireportu-azpiegitura asko eremu txiki-txiki honetan.**

Aireportu-azpiegiturak, zenbait portu-azpiegiturak eta AHTak, zenbait arrazoi direla medio, eskumen-eremuak dituzte, eta, ildo horretan, erabaki sektorial exekutatuak eta exekutatzen ari direnak. Dena den, 9.4 puntuan koordinaziorako lurralde-jarraibide batzuk ematen dira.

**87. Aldiriko trenbide-komunikazioa hobetzea.**

Aldiriko trenbide-sistemak berebiziko garrantzia du lurralde-ereduan. Hau adierazten du, ildo horretan, Aurrerapenak: <<Euskadik baldintza ezin hobeak ditu trenbide-sistekin babestutako mugikortasun jasangarriko sistemak garatzeko, biztanleria-dentsitate handia duelako, zenbait herrigunetan kontzentratuta ardatz linealetan barrena. Hortaz, trenbide-sistemetan oinarritutako garraio kolektiboko sistema indartsua eratzea da erronka.>>

**88. Azpiegitura handi batzuk ez dira lurralde-hausnarketaren parte (AHT), eta azpiegituraren diseinuan herritarrek eta udalek ez badute parte hartu, herritarrek eta udalek ez dute haren garapenaren kontrolik.**

Puntu honetan, gorago adierazitakoa berretsi behar dugu: aireportu-azpiegiturek, zenbait portu-azpiegiturak eta AHTak, zenbait arrazoi direla medio, eskumen-eremuak dituzte, eta, ildo horretan, erabaki sektorial exekutatuak eta exekutatzen ari direnak. Dena den, 9.4 puntuan koordinaziorako lurralde-jarraibide batzuk ematen dira.

▪ **MUGIKORTASUN KOLEKTIBO MULTIMODALA**

**89. Txartel bakarra egotea.**

Txartel bakarra oso garrantzitsua da mugikortasun kolektibo multimodala lortzeko. Hau dio Aurrerapenak 9.1 atalean: <<Garraibideen erabilera optimoak lankidetzazko lan koordinatua eskatzen du, EAE osoari garraio-zerbitzu publikoa eskainiko diona, elkarren arteko eragiketak ahalbidetuko dituen, txartel bakarraz erabiltzeko modukoa; fisikoki zein ekonomikoki irisgarria; azkarra eta segurua erabiltzaile guztientzat.>>

**90. Mugikortasun hurbila sustatzea (herrien artekoa).**

Herrien arteko mugikortasuna EAEko errealitate zehatz bakoitzari egokitu behar zaio, eta, horregatik, geroagoko faseetan garatu behar da. Dena den, Aurrerapenean zenbait irizpide orokor adierazten dira; adibidez: oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna sendotzea, garraio publikoa eta haien guztien arteko intermodalitatea.

**91. Bizikleta-sarearen eta garraio publikoaren arteko lotura planteamendu errealistagoetatik egitea; edota herri txikien artean eskatu ahalako garraio-zerbitzua zabaltzea.**

Eskatu ahalako garraio-zerbitzua oso egokia da landa-eremuan, eta hala adierazten da Aurrerapenean. Beste alde batetik, intermodalitatea funtsezko alderdia da mugikortasun-sarean, eta Aurrerapenean atal berezi bat dago harentzat: 9.1 atala.

▪ **EREDU LOGISTIKOA**

**92. Zalantzan jartzen da Europako nodo estrategikoan kokatu beharra eta hori sustatu beharra.**

EAEk hiri-kontzentrazio handia duenez, eta alboko hiriek eta ipar-hegoko ardatzak eta Kantabrikoa-Ebro harana ardatzak bat egiten duten lekuan dagoenez, 1997ko LAGetan Euskadi Europako errotula zela adierazi zen. Eta hori errealitate bat ez ezik, sustatu nahi den alderdi bat da.

○ **URA**

**93. Uraren zikloaren planifikazio integrala egiteko beharra eskualde-ikuspegitik.**

Uraren planifikazioa modu osoan egiten du EAE guztirako URA-Uraren Euskal Agentziak. Aurrerapeneko 8.1 atalean orain artean lortutakoa errepasatzen da, eta etorkizunean izan beharreko irizpideak adierazten. LAGek sektoreen lurralde-plangintza integratua egiten dute, eta sektoreek egin beharko dute beraiei dagokien plangintza.

**94. Uraren kudeaketa hobetzea landa-eremuetan.**

Lehen adierazi bezala, uraren planifikazioa modu osoan egiten du URA-Uraren Euskal Agentziak; eta 8.1 atalean arlo horretan kontuan izan beharreko jarraibideak adierazten dira.

**95. Frackingak akuiferoak kutsatuko dituen beldurra dago.**

Aurrerapenak lurpeko baliabide hidrikoen tratamenduari buruzko gidalerroak ditu 4.1 atalean. Beste alde batetik, frackingari dagokionez, hau adierazten da: <<Jasangarritasunaren mesedetan, bazter utzi beharko litzateke energia-iturri ez-berriztagarri ez-konbentzionalen bilaketa. Haustura hidraulikoaren kasuan zehazki, zorupearen konposizio-aldaketaren ondorioen gaineko zalantzak eta lurzoruan instalatzearen inpaktuak, biztanleriari eta hiri-azpiegiturei dagokienez nabarmen trinkoa den lurralde batean –hots, EAEn– jardutearekin batera, teknika horren garapena ez burutzea aholkatzen dute.>>

○ **ENERGIA**

**96. Autokontsumoa sustatzea.**

8.2 “Energia” ataleko helburuetako bat hau da: <<Elektrizitatea sortzeko parkearen jasangarritasuna hobetzea, berriztagarrien eta kogenerazioaren instalazio berriak erantsiz, banatutako sorkuntza handituz eta autokontsumoa sustatuz.>> Atal horretako gidalerroen barruan, hau egin behar dela adierazten da: <<Aprobetxamendu-sistemen bidez (eguzkia, eolikoa, biomasa eta abar) eraikin eta instalazioen energia-autohornidura erraztea, berriztagarrien beroa aprobetxatzeko soluzioei lehentasuna emanez ez-berriztagarrien aldean, eta energia-autokontsumoko sistemak erabiliz lur urbanizaezinetan kokatutako eraikin isolatuetan.>>

**97. Tokiko sareko energia-eredua.**

Tokiko sareko energia-eredua hiri-berroneratzeetan erabiltzen hasi da, autokontsumoarekin eta energia berriztagarrien erabilerarekin lotuta.

○ **GOBERNANTZA: PARTE-HARTZEA, ANTOLAMENDUA, ADIERAZLEAK**

**98. Eusko Jaurlaritzako sailen arteko koordinazioa, zeharkako gaiak eraginkortasun handiagoz jorratzeko.**

Zeharkako gaiak lurralde-antolamenduaren eremutik kanpo daude. Dena den, Aurrerapeneko kapituluak egiteko prozesuan, zenbait iturritatik lortu dugu informazioa. Hain zuzen ere, zeharkako gaietarako, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin elkarlanean jardun dugu Oinarrizko Dokumentua egiteko eta Aurrerapenerako ere bai, osasunaren, genero-ikuspegiaren, klima-aldaketaren, irisgarritasun unibertsalaren eta euskararen arloan. Aurrerapena lantzean egindako ekarpenak sailaren webgunean daude.

**99. LAGek, LPpek eta LPSek elkarrekin joan behar dute.**

11. kapituluak, “Gobernantza” izenekoan, eta, zehazki 11.2 “Antolaketa eta Kudeaketa” atalean, zenbait irizpide adierazten dira lurralde-plangintzen arteko koherentzia hobetzeko. Adibidez, gidalerro moduan sartzen dira: <<Lurralde Plan Partzialetarako formatu erkide bat ezartzea, eredu gisa erabiltzekoa eta aztertu beharreko gaien eta elementu grafiko erkideen homogeneotasuna ahalbidetuko duena, Lurralde Plan Partzialen arteko komunikazioa eta interrelazioa hobetuko duena eta ebaluazio konparatibo aberasgarriagoa ekarriko duena. LPPen formatu erkide horretan Eremu Funtzionalaz gaindiko dimentsioa biltzea, eta beste

*Eremu Funtzional batzuekiko –eta bereziki mugakideekiko– interrelazioa aztertzea. LPP eta LPSetan, lehenetasunari dagokionez sor litezkeen gatazken soluzioak azaltzea.>>*

**100. Plangintzako tresnak —izan LAGak, LPPak, LPSak edo HAPNak— onartzeko izapideak arindu eta sinplifikatzea.**

Arazo horren jakitun, helburuen artean 11.2 puntu hau sartu da: <<Lurralde-antolamenduko tresnen izapidetzea arrazoizko denbora-epeetara mugatzea.>>

**101. Parte-hartzeak handia izan beharko luke lurralde-antolamenduko planetan.**

Aurrerapenak 11.3 atalean lantzen du parte-hartzearen gaia. Eta, hain zuzen, hau dio atal horretako gidalerroetako batek: <<Lurralde-antolamenduko tresna guztiak hartzean eta haien jarraipena egitean gizartearen zein erakundeen parte-hartzerako prozesu eta planak txertatzea. Lurralde-plangintzako tresnen ezarpenean eta jarraipenean parte-hartze presentziala eta digitala bermatzeko behar diren bitartekoak gaitzea.>>

**102. Administrazioak feedbackik ez izatea parte hartzen dutenekin gogoa eta motibazioa kentzen die herritarrei.**

Administrazioak parte hartzen dutenekin feedbackik ez izatea administrazio bakoitzak aurre egin beharreko kritika da. LAGen berrikuspenari dagokionez, webean argitaratzen dira albiste eta ekarpen guztiak, banan-banan eskertu dira idatziz egindako ekarpen guztiak eta LAGen Berrikuspenaren ildotik egindako parte-hartzeko ekintzetara etorri izana, eta, horrez gain Aurrerapena jendaurrean aurkezteko eta parte-hartzea itzultzeko bost saio egin dira: lehenengoa, Euskal Hiria Kongresua 2016 izan zen; ondoren, hiriburu bakoitzean bat egin zen, eta azkena Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren egoitzan, Bilbon. Horrez gain, aldi baterako erakusketak egin dira hiru hiriburuetan, Aurrerapenaren eta parte-hartzearen eduki garrantzitsuenak azaltzeko. Orobat, idatzi hau bera gizartearen ekarpenak zenbateko interesez eta dedikazioz hartu diren erakusteko modu bat ere bada.

**103. Hezkuntzatik eta pedagogiatik egin behar da lan.**

Une hauetan lan egiten ari gara hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloan, ez Gidalerroen Berrikuspenaren eta horrelakoen baitako parte-hartze prozesuetan soilik, baita beste zenbait arlotan ere, paisaiarenean kasu.

**104. LAG alderdi lotesle gehiago dituen tresna bilakatzea.**

Gorago adierazi denez, Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak (8. artikulua) adierazten du LAG guztiak lotesleak direla. Aurrerapenari begira, ahalegin handia egin da zehazteko zenbateraino diren lotesleak gidalerroak: nahitaez bete beharrekoak, edota proposatze eraginkortasunekoak (ez badira betetzen arrazoitu egin beharko da zergatik). Aurrerapeneko 11.5 puntua Araudia da.

- **BERRIKUNTZAK: ONDAREA, HONDAKINEN KUDEAKETA, PEDAGOGIA ETA SENSIBILIZAZIOA, SMART CITYak ETA SMART CITIZENak, PERTSONA ERREFUXIATUAK ETA MIGRANTEAK**

**105. LAGen berrikuspenaren baitako parte-hartze prozesua zabaltzeko lan handia egitea.**

Etengabe jardun behar da lan horretan; parte-hartze prozesuari dagokionez, weba ezagutarazteko lana egin da eta Facebooken eta Irekian zintzilikatu dira lorpen garrantzitsuenak. 2017an, Aurrerapena egin dagoela, dibulgazio-lan horretan jardungo dugu.

**106. Parte-hartze prozesuak lasaitasunez eta denboraz egin behar dira, lehendabizi informazioa eman behar baitaie herritarrei.**

Uste dugu informazioak jarraitua izan behar duela, hau da, ez duela mugatu behar une edo aldi jakin batera. Denborak egokia izan behar du, parte-hartze prozesu luzeak interesa galtzea baitakar eta parte-hartzearen xede den hori ere arriskuan jartzen da.

## B- PARTE-HARTZE DIGITALA: IREKIA, TWITTER, FACEBOOK ETA ZUZENDARITZAREN WEBA

### ○ LURRALDE-EREDUA

#### **107. Benetan lotesleak diren neurriak ezartzea. Uste da egungo esparru arautzailea malagueia dela.**

Gorago adierazi denez, Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak (8. artikulua) adierazten du LAG guztiak lotesleak direla. Aurrerapenari begira, ahalegin handia egin da zehazteko zenbateraino diren lotesleak gidalerroak: nahitaez bete beharrekoak, edota proposatze eraginkortasunekoak (ez badira betetzen arrazoitu egin beharko da zergatik). Aurrerapeneko 11.5 puntua Araudia da.

### ○ ZEHARKAKO GAIAK

#### ▪ GENERO-IKUSPEGIA

#### **108. “Irisgarritasun unibertsala” kontzeptua sartzea planteatzen da.**

Irisgarritasun unibertsala zeharkako gai moduan txertatu da Aurrerapeneko 10.5 puntuan.

#### **109. Neurriak ezartzea erabilera-nahasketa eta hiri-jarduera sustatzeko.**

Erabilera-nahasketa hiri-bizitza sustatzeko tekniketako bat da, eta beste helburu batzuk lortzen ere laguntzen du; adibidez, joan-etorriak murriztea eta hiri inklusibo eta irisgarriagoak lortzea. Aurrerapeneko 6. kapituluari ikusten denez, dokumentuan proposatzen den hiri-eraberritzea eta -berroneratzea beste ekintza batzuekin batera egin behar dira, hala nola plangintzaren malgutasun handiagoa erabilera-nahasketari dagokionez, garapen berrietako tipologiei eta dentsitatei dagokienez, eta hirigintza-hazkundeak garraio kolektiboko sistemei lotuta joatea.

#### ▪ KLIMA-ALDAKETA

#### **110. Klima-aldaketaren aurkako borroka hauekin bat egitea: eredu ekonomiko berri bat (zirkularra, zero ikatz), mugikortasunak eta industriak sortutako emisioak murriztea, garraio publikoa eta energia berriztagarriak sustatzea, eraikitako parkearen energia-eraginkortasuna hobetzea eta hondakinen kudeaketa integrala eta birziklatzearen / ekonomia zirkularraren baitakoa.**

Aurrerapenak atal berri bat du, 8.3 “Ekonomia zirkularra” izenekoak. Horrek eredu-aldaketa bat adierazten du, erabilitako baliabideek fluxu ekonomikoaren barruan ahalik eta denbora gehien eman dezaten bilatzen da-eta. Ekarpenetan adierazitako beste neurriak bat datoz Aurrerapeneko dokumentuan adierazitakoarekin, eta Aurrerapeneko une askotan aipatzen dira.

#### ▪ OSASUNA

#### **111. Herritarren osasuna hobetzea kutsadura murriztuz eta ingurumena hobetuz, mugikortasun osasuntsua eta jarduera fisikoa sustatuz, irisgarritasun unibertsala bermatuz eta ohitura osasungarriak sustatuz.**

Osasuna Aurrerapeneko 10.3 atalean aipatzen den zeharkako gaia da. Hona hemen atal horretako gidalerroetako batzuk: <<Oroimen kolektiboan garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten edo nortasuna duten lekuak zaintzea eta/edo hobetzea. Oinezkoen korridoreen bidez, bizikleta-sarearen bidez edo garraio publikoaren bidez elkarri lotutako eta hiri-ingurunearekin lotutako berdegune eta/edo eremu naturalen erabilera sustatzea. Nekazaritza-erabilerako lurak babestu eta leheneratzea, eta hurbiltasuneko elikadura osasungarria sustatzea. Gune eroso, seguru eta jende guztiarentzat irisgarriak sortzea, herritarren ongizatearen eta kohesio sozialaren mesedetan. Hiri-garapen trinkoak sustatzea, lurzorua erabilera mistoaz, ongi lotutako kale irisgarriez eta bizitegi- eta merkataritza-dentsitate egokiaz. Oinez ibiltzeko moduko inguruneak diseinatzea, jarduera fisikoa egitea eragozten duten oztopoak kenduz. Agente kutsatzaileen kontzentrazioa murriztea, hiriko zein hiriarteko garraio publikoaren erabilera sustatuz.>>

**112. *Joan-etorriak eta haietan emandako denbora murriztea.***

Idatzi honetan lehen ere adierazi den bezala, dentsitatea eta erabilera mistoak funtsezkoak dira familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko, joan-etorriak murrizteko eta hiri biziagoak lortzeko. Aurrerapenean proposatutako beste neurri batzuek, hala nola intermodalitateak, joan-etorrietan emandako denbora murrizten laguntzen dute.

▪ **EUSKARA**

**113. *“Arnasguneak” babestea.***

Lehen ere adierazi bezala, Aurrerapeneko dokumentuak planteatzen du EAEko errealitate soziolinguistikoa plangintzan sartu behar dela (Aurrerapeneko 10.4 puntua, Araudiko 35. artikulua).

▪ **LURRALDE-ERLAZIOA**

**114. *Lekualdatzeen prezioa murriztea edo garraio publikorako kudeaketa-sistema komunak sortzea.***

Lekualdatzeen prezioan hainbat faktorek eragiten dute, eta haietako batzuk lurralde-antolamenduaren eskumenetik kanpokoak dira. Dena den, eta kostua diren neurrian, joan-etorrietan emandako denbora murriztea sustatzen da, zenbait estrategiaren bidez, hala nola intermodalitatea, dentsitatea edo erabilera-nahasketa.

○ **PAISAIA**

**115. *Paisaiak kontserbatu eta babestu beharra.***

LAGen Berrikuspenean paisaia Florentziako Hitzarmeneko definizioak adierazi bezala lantzen da; hau da, lurraldeko atal moduan, biztanleek hautematen duten bezala, alegia. Horregatik, kontuan hartzen dira bai paisaia bikainak (kontserbatu eta babestu egin behar direla adierazten da), bai degradatutakoak eta egunerokoak ere (hobetzeko neurriak proposatzen dira).

**116. *Bertako espezieak sustatzea.***

Bertako espezieen sustapena dokumentuan behin eta berriro agertzen den kontua da, eta zenbait ikuspegitatik heltzen zaio. Zehazki, paisaiaren ikuspegitik, gidalerro hau da

aipagarriena: <<Lehendik dagoen landaredia desagertzen bada, konpentsazio-neurri jakin batzuk ezartzea, lurren testura eta baso-masa kontserbatzeko eta paisaia naturala eta landare-estaldura kontserbatu eta bertako espezieak, edo, hala badagokio, produkzio- eta biziraupen-baliabide tradizionalei lotuta betidanik ustiatu direnak, indartzeko.>>

**117. Azpiegiturak edo hiri-garapen berriak egitearen inpaktua murriztea eta antropizazioaren eragin negatiboak murriztea.**

Illo horretan, hau adierazten da dokumentuko 7.1 puntuan (Araudiko 20. artikulua): <<Paisaian eragina izan dezaketen azpiegitura, obra eta jarduera guztien oinarritzko baldintzak betetzen direla bermatzea, ingurunea ebaluatzeko tresnen edo paisaia integratzeko azterlanen bitartez.>> Dena dela ere, azpiegitura berriak edo hiri-garapen berriak egitean kontuan hartu beharko dira LAGen Berrikuspenean ezarritako baldintzak.

**118. Paisaiak eragile ekonomiko moduan duen ekoizpen-alderdia.**

Gorago adierazi denez, agiriko 7.1 puntuan hau aitortzen da: <<EAEko paisaia oso aberatsa eta askotarikoa da, eta ingurumenaren, kulturaren, gizartearen, historiaren eta ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, guztion intereseko ondare eta baliabidetzat hartzen da.>>

○ **INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA**

**119. Paisaia kontzeptua sartzeari proiektuak egiten hasten den unetik bertatik.**

90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa, onartu zenetik, EAEko lurralde-antolamenduan arautu egin da paisaia, eta lurralde-plangintzan txertatzeko tresnak ezarri dira. Beraz, proiektuak egiten hasi aurretik hartzen da kontuan.

▪ **INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA**

**120. Tokiko ekonomia sustatzen duten jarduerak.**

Tokiko ekonomia Berrikuspenean sustatzen den kontzeptua da, eta nazioarteko zenbait dokumentutan proposatzen da, Aurrerapeneko hasieretako kapituluetan adierazi bezala. Eta Aurrerapeneko dokumentuan islatzen da zenbait kapitulutan, hala nola azpiegitura berdearenean edo landa-habitatarenean. Esaterako, hau da azken horretako helburuetako bat: <<Elikagaien nahikotasuna eta segurtasuna bermatzea, hurbileko horniketa bultzatuta hiri-baratzeez haratago.>> Bestalde, dentsitateak eta erabilera-nahasketak besteak beste, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko distantzia murrizten laguntzen dute, eta horrek tokiko ekonomia sustatzen laguntzen du.

**121. Tokiko kontsumoa sustatzea.**

Aurreko puntuan adierazitakoaren antzekoa esan behar dugu. Hain zuzen ere, dentsitateak, erabilera-nahasketak eta merkataritza-ekipamendu handiak mugatzeak tokiko kontsumoa sustatzen dute.

**122. Ezaugarri bereziko inguruak babestea.**

LAGen helburuetako bat balio handia dutelako babestu egin behar diren naturguneak adieraztea da. Aurrerapeneko dokumentuak 1997tik ingurumenaren babesaren arloan egindako lorpenak ditu abiapuntu, eta naturguneen ikuspegi integratua sustatzen du,

ekosistema-zerbitzuen oinarri metodologikoan oinarrituta, eta “Azpiegitura berdea” kontzeptu komunean bilduta. Ikuspegi hori Aurrerapeneko dokumentuko 4.2 atalean lantzen da.

**123. Baso autoktonoak landatzea.**

Gorago ere adierazi denez, bertako espezieen sustapena dokumentuan behin eta berriro agertzen den kontua da, eta zenbait ikuspegitik heltzen zaio. Zehazki, paisaiaren ikuspegitik, gidalerro hau da aipagarriena: <<Lehendik dagoen landaredia desagertzen bada, konpentsazio-neurri jakin batzuk ezartzea, lurren testura eta baso-masa kontserbatzeko eta paisaia naturala eta landare-estaldura kontserbatu eta bertako espezieak, edo, hala badagokio, produkzio- eta biziraupen-baliabide tradizionalei lotuta betidanik ustiatu direnak, indartzeko.>>

**124. Nekazaritza ekologikoa eta haren merkaturatzea.**

Aurrerapeneko 4.2 atalean, hau agertzen da helburu moduan: <<Nekazaritza ekologikoa eta hurbileko ekoizpen-bitartekoak sustatzea, eta landa-biztanleriaren lana balioztatzea ekosistemen kontserbazioan eta kudeaketan, eta bizi-kalitatearen hobekuntza.>>

**125. Genetikoki eraldatutako organismoak debekatzea.**

Genetikoki eraldatutako organismoen gaia ez da lantzen LAGen Berrikuspenean, uste baitugu lurralde-antolamenduaren mugetatik kanpo dagoela.

**126. Nekazaritza-politika aldatzea.**

Nekazaritza-politika lurralde-antolamenduari arautzea ez dagokion politika sektoriala da. Aurrerapeneko 5. kapituluan, Landa Habitata izenekoan, abian dauden eta lurraldean eragina duten politikak jasotzen ahalegindu gara. Han ezarritako gidalerroak proposatze eraginkortasunekoak dira, aipatutako eskumen sektorialak direla eta.

**127. Elikagaien subiranotasuna.**

Elikagaien nahikotasuna LAGek sustatzen duten helburuetako bat da. Landa Habitata 5. kapituluko helburuetako bat hau da: <<Elikagaien nahikotasuna eta segurtasuna bermatzea, hurbileko horniketa bultzatuta hiri-baratzeez haratago.>>

**128. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi txikiak berreskuratu eta laguntzea.**

Dokumentuak ez ditu bereizten nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi handiak eta txikiak. Dena den, gidalerroen abiapuntua ustiategi tradizionalen errespetua da, baserriarena kasu. Adibide gisa: <<Nekazaritza-ustiategien jarraitutasuna ziurtatzea landa-ingurune garapen sozioekonomikoaren oinarritzko tresna gisa nekazaritza-jarduerak egikaritzen dituen ingurune-eta lurralde-funtzioekin bat datozen produkzio-ereduetatik abiatuta, nekazaritza-ustiategien errentagarritasuna indartuz faktore erabakigarri gisa biztanleria finkatzeko eta landa-enplegua sustatzeko>>, edota <<Lurralde Antolamenduko dokumentuetan oinarrituta, plangintza baserrien mantentzera lotzen duten irizpideak ezartzea eta haien galera saihestea, nekazaritza-jardueraren egikaritzapenetik eta administrazio desberdinek horri dagokionez egin beharko duten kudeaketatik abiatuta.>>

**129. Marihuanaren nekazaritza-industria garatzea, erabilera farmazeutikorako, drogeriarako eta ehungintzan, papergintzan eta eraikuntzan erabiltzeko.**

Alderdi hori LAGen arautzeetatik kanpo dago.

**130. Bereziki babestea nekazaritza-lur sailkatutako lurzorua.**

Lehen ere adierazi bezala, gaitasun agrologiko handieneko lurzoruak babestuta daude, neurri handi batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan

Sektorialaren bidez, zeina irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. (2014ko urriaren 17ko EHAA).

**131. *Lurrak berreskuratzea nekazaritzarako eta abeltzaintzarako.***

Aurrerapeneko Landa Habitata 5. kapituluak nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak eremu horretako funtsezko elementutzat ditu, gidalerro honetan adierazten den bezala: <<Nekazaritza-ustategien jarraitutasuna ziurtatzea landa-inguruneko garapen sozioekonomikoaren oinarritzko tresna gisa nekazaritza-jarduerak egikaritzen dituen ingurune-eta lurralde-funtzioekin bat datozen produkzio-ereduetatik abiatuta, nekazaritza-ustategien errentagarritasuna indartuz faktore erabakigarri gisa biztanleria finkatzeko eta landa-enplegua sustatzeko.>>

**132. *Kontsumitzaile-elkarteak sustatzea ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko salmenta zuzena lortzeko.***

LAGen Berrikuspenari ez dagokion alderdi sektorial bat da.

**133. *Kutsadura-txokoak desagerraraztea.***

Dokumentuaren helburuetako bat kutsadura desagerraraztea eta kudeatzea da, zenbait kapitulutan aditzera ematen denez. Esate baterako, 8.3 atalak, ekonomia zirkularra lantzen duenak, funtsezko helburuen artean energia aurrezte eta karbono-dioxidoaren emisioak murriztea ditu, airearen, lurzorua edo uraren kutsadurak sortutako kalteak arintzeko. Baliabideak izugarritzko erritmoan erabiltzearen ondorioz gertatu da hori, gure planetak baliabide horiek berritzeko duen ahalmenaren gainetik erabiltzearen ondorioz, alegia.

**134. *Lur-bankuak sortzea.***

Landa Habitata kapituluaren gidalerroetako batek hau adierazten du: <<Lurralde- eta udal-plangintzako tresnek Landa Garapeneko Planaren proposamenak kontuan izango dituzte nekazari gazteak ingurunera sartzeko bultzatzen duten tresnak sortzeko eta hobetzeko; ekimen publiko eta pribatuak martxan jartzea azpimarratuko dute, hala nola nekazaritza-herrixkak, nekazaritza-lurren bitartekaritza-zentroak, lur-bankuak edo helburu berak betetzen dituzten beste batzuk.>>

**135. *Elkarlaneko etxebizitzak eta erabilera-lagapenekoak.***

Lurralde-antolamenduari dagokion gaia ez denez, dokumentuak ez dio berariaz heltzen elkarlaneko etxebizitzaren eta erabilera-lagapeneko etxebizitzaren gaiari.

▪ **AZPIEGITURA BERDE INTEGRATUA ETA EKOSISTEMEN ZERBITZUAK**

**136. *Naturguneak elkarrekin lotzea eta kalitate ekologiko orokorra hobetzea.***

Dokumentu honek planteatzen duen lurralde-ereduaren funtsezko oinarrietako bat jasangarritasuna da. Dokumentuak ingurumenaren ikuspegi integratua du, eta sarean lotzen ditu ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren espazioak, korridore ekologikoen bidez. Azpiegitura berdean eta ekosistema-zerbitzuetan adierazten den ikuspegi integratu horrek, eta Aurrerapenak eta sektoreko beste xedapen batzuek ezarritako neurriek, kalitate ekologiko orokorra hobetzen laguntzen dute.

**137. *Ekosistemak egoera onean edukitzea etorkizunerako.***

Lehen ere adierazi bezala, LAGen Berrikuspenaren oinarrietako bat jasangarritasuna da. Azpiegitura berdean eta ekosistema-zerbitzuetan adierazten den ikuspegi integratu horrek, eta

Aurrerapenak eta sektoreko beste xedapen batzuek ezarritako neurriek, kalitate ekologiko orokorra hobetzen laguntzen dute. Azpiegitura berdea eta ekosistema-zerbitzuak Aurrerapeneko 4.2 atalean lantzen dira.

**138. *Ikerketa-lerroak azpiegitura gris deritzenak azpiegitura berdez ordeztuko.***

Aurrerapeneko 4.2 ataleko gidalerroetako batek hau adierazten du: <<Azpiegituren garapenean naturan oinarritutako soluzioak lehenestea bultzatuko da —eta edozein kasutan ere jarraitutasun ekologikoarekin bateragarriak direnak inpaktu handiko soluzio teknikoan aurrean— zenbait soluzioren bidez, hala nola ekoduktuak, tunelak eta bioingeniaritzako obrak.>>

**139. *Koordinazioa eta lankidetzaren bermatzeko arauak eta protokoloak.***

Dokumentuan zenbait puntutan azpimarratzen da beharrezkoa dela koordinazioa eta lankidetzaren bermatzea. Adibidez, LPPak eta LPSak garatzeko (11. kapitulua, “Gobernantza”), eta plangintzak bateragarri egiteko (6.6 atala), besteak beste.

**140. *Partaidetzako eta lankidetzako bideak garatzea.***

LAGen Berrikuspenak gobernantzari buruzko kapitulu bat du (Aurrerapeneko 11. kapitulua), gai horiek lantzen dituena.

**141. *Lurzoruaren kudeaketaren ikuspegi integratua.***

Ingurune fisikoaren antolaketak (Aurrerapeneko 4. kapitulua) lurzoruaren kudeaketaren ikuspegi integratua du, erabilerak arautuz eta irizpide batzuk ezarriz ingurune fisikoko elementuetarako, prozesuetarako eta hartan egiten diren jarduerak kontrolatzeko.

▪ **KORRIDORE EKOLOGIKOAK**

**142. *Konektibitatea lortzea komeni da.***

Gorago adierazi bezala, dokumentuak ingurumenaren ikuspegi integratua du, eta sarean lotzen ditu ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren espazioak, korridore ekologikoen bidez. Konektibitatea eskala guztietan jorratzen da, hasi EAEtik eta buka tokian-tokian.

**143. *Korridoreen ekoizpen-funtzioa.***

Korridore ekologikoak gainjarritako baldintza moduan sartzen dira plangintzan, eta jarduera onargarriak jarraitutasun ekologikoaren helburua lortzea eragozten ez dutenak izango dira, helburu horiek lortzen laguntzen dutenak lehenetsita. Hori guztia Aurrerapeneko 4. kapitulan lantzen da.

○ **LANDA-INGURUNEA**

**144. *Landa-politika propioa izateko oinarriak ezartzea.***

Aurrerapeneko 5. kapituluak, “Landa Habitata” izenekoak, arlo horretan EAEen egiten ari dena jasotzen du. Eskumen sektorialak dituen gaia da, eta, beraz, LAGen proposamen-irismenetik kanpo dago hein handi batean.

**145. *Merkaturatzea sustatu eta erraztea. Hurbiltasuneko merkatuak. Kooperatibak.***

Gorago adierazi den bezala, tokiko ekonomia Berrikuspenean sustatzen den kontzeptua da, eta nazioarteko zenbait dokumentutan proposatzen da, Aurrerapeneko hasieretako kapituluetan adierazi bezala. Eta Aurrerapeneko dokumentuan islatzen da zenbait kapitulutan, hala nola

azpiegitura berdearenean edo landa-habitatarenean. Esaterako, hau da azken horretako helburuetako bat: <<Elikagaien nahikotasuna eta segurtasuna bermatzea, hurbileko horniketa bultzatuta hiri-baratzeez haratago.>> Bestalde, dentsitateak eta erabilera-nahasketak besteak beste, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko distantzia murrizten laguntzeaz gain, kontsumitzaile-kontzentrazio handiagoa dakarte, eta horrek hurbiltasuneko merkatuak sustatzea eragiten du, edota kooperatibak sortzea.

**146. Ekonomia zirkularrak sustatzea.**

Ekonomia zirkularrari atal bat eskaintzen dio Aurrerapenak, 8.3 atala, hain zuzen. Eredu ekonomiko horretan, produktuak eta baliabideak ahalik eta denbora gehien egoten dira fluxu ekonomikoen barruan. Oinarrizko lehentasuna da ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta garapen jasagarria lortzeko.

**147. Tokiko ekonomia sustatzen duten jarduerak.**

Gorago adierazi den bezala, tokiko ekonomia Berrikuspenean sustatzen den kontzeptua da, eta nazioarteko zenbait dokumentutan proposatzen da, Aurrerapeneko hasieretako kapituluetan adierazi bezala. Eta Aurrerapeneko dokumentuan islatzen da zenbait kapitulutan, hala nola azpiegitura berdearenean edo landa-habitatarenean. Esaterako, hau da azken horretako helburuetako bat: <<Elikagaien nahikotasuna eta segurtasuna bermatzea, hurbileko horniketa bultzatuta hiri-baratzeez haratago.>> Bestalde, dentsitateak eta erabilera-nahasketak besteak beste, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko distantzia murrizten laguntzen dute.

○ **HIRIGUNEA**

**148. Hiriguneen birgaitze fisikorako alderdiak aintzat hartzeaz gain, biziberritze ekonomikoa eta gizarteratzea ere kontuan hartzea.**

Hiri-berroneratzea funtsezko oinarria da LAGen Berrikuspenean. Eta birgaitzetik eta berritzetik haratago doa, alderdi ekonomikoa eta soziala hobetzeko azterketak ere egitea baitakar. 6.2 ataleko helburuetako batek dioten bezala, <<hiriguneetan eta haien inguruneetan dauden gizarte- eta hirigintza-desorekak gainditzen>> lagundu behar du.

**149. Irisgarritasuna.**

Aurrerapenean, zeharkako alderdi moduan sartu da irisgarritasun unibertsala (10.5 atala).

**150. Hiri-erabilerak eta -jarduerak nahastea.**

Erabilera-nahasketa hiri-bizitza sustatzeko tekniketako bat da, eta beste helburu batzuk lortzen ere laguntzen du; adibidez, joan-etorriak murriztea eta hiri inklusibo eta irisgarriagoak lortzea. Aurrerapeneko 6. kapituluaren ikusten denez, dokumentuan proposatzen den hiri-eraberritzea eta -berroneratzea beste ekintza batzuekin batera egin behar da, hala nola plangintzaren malgutasun handiagoa erabilera-nahasketari dagokionez, garapen berrietako tipologiei eta dentsitatei dagokienez, eta hirigintza-hazkundeak garraio kolektiboko sistemei lotuta joatea eta oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna lehenestea. Horrekin guztiarekin, hiri-jarduerak sustatu nahi dira.

**151. Espazioen diseinua.**

Espazioen diseinua bera ez da LAGen helburua, baina proiektuak garatzean kontuan hartu beharreko zenbait irizpide orokor ezartzen dira.

**152. Hiri-paisaia eta nortasuna.**

Nortasuna hiri-paisaian egiten den esku-hartze garrantzitsu orotan kontuan hartu beharreko alderdia da, eta hala jotzen da Aurrerapenean ere. Adibide moduan, Paisaiari buruzko atal batek, 7.1 atalak, adierazten du <<hiri-paisaia berezi eta historikoen izaera mantentzen lagundu>> behar dela, eta zenbait neurri ezartzen ditu horretarako.

**153. *Hiri-ingurunea pertsona guztientzat eta haien bizitza-ziklo guztietarako planifikatzea.***

Lurralde-ereduaren lurralde-oinarrietako bat “Lurralde inklusiboa” da, gizarte-lurralde orekatu bat lortzea helburu duena. Gai horretan, zenbait alderdi biltzen dira: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, biztanleriaren zahartzea eta abar.

▪ **HIRI-BIRGAITZEA ETA -BERRONERATZEA**

**154. *Modu zuhurragoan esku-hartzea hirietan, eta ongizate handiagoa sortzea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik.***

Hirietan ongizate handiagoa lortzeko esku-hartze zuhurragoa egiteari ematen zaion erantzuna hainbat arlotakoa da: hiri-birgaitzea, -berritzea eta -berroneratzea da; hirietan azpiegitura berdea sartzeari; dentsitatea eta erabilera-nahasketa sustatzea; hiri-bizitza handitzea; oinezko eta bizikleta bidezko garraioa eta garraio publikoa gehiago sustatzea; eta energia-eraginkortasunaren apustua egitea, besteak beste.

**155. *Urbanizazio lausoa murriztu eta auzo trinkoak eraikitzea laguntzen duten hiri-antolamenduko planak ezartzea.***

Aurrerapenak zenbait neurri ezartzen ditu udal-plangintzetarako, urbanizazio lausoa murriztu eta auzo trinkoak eraiki daitezen sustatzeko. Hona hemen Aurrerapenak arlo horretarako proposatutako zenbait tresna: hiri-berroneratzea (6.2 atala); hiri-hazkundeko perimetroa (6.3) eta bizitegi kuantifikazioa (6.5).

**156. *Etxebizitza eskuratzea errazagoa izateko eta eraikitako ondarea okupatzeko neurriak; adibidez, etxebizitza hutsen gaineko zerga berriak, zerga-pizgarriak etxebizitzak alokatzeari, administrazioek higiezinak erostea eta abar.***

Adierazitako proposamen horietako gehienak sektorialak dira, etxebizitzaren arlokoak.

**157. *Irizpide bioklimatikoekin eraikitzea.***

Eraikuntza-irizpide jakin batzuk erabiltzea ez da lurralde-plangintzari dagokion eskalakoa, baina, hala ere, lurralde-alderdiei ere eragiten dienez, gidalerro moduan sartu da irizpide horiek sustatzea, 6. kapituluan, “Hiri Habitata” izenekoan, bereziki. Adibide moduan, Eraldaketa Ardatzetako gidalerroetako bat da <<Hirigintzako eta arkitekturako diseinu bioklimatikoaren printzipioak sustatzea, Eraldaketa Ardatzen ingurumen-jasangarritasuneko elementutzat hartuta.>>

**158. *Berdegune egokiak sortzea.***

Hiriguneetan berdegune egokiak sortzea udal-plangintzaren lana da. LAGaren Berrikuspenak Azpiegitura Berdea kontzeptua proposatzen du, natura hiri-ingurunean sartzeko duen sare moduan. Adibide moduan, aipatu behar da Aurrerapeneko 4.2 ataleko 10. gidalerroak hau adierazten duela besteak beste: <<Hirigintza-plangintzak (...) Eremu Funtzionaleko azpiegitura berdearekin eta EAEren azpiegitura berdearekin konektatutako tokiko azpiegitura berdea bilduko du, azken horren zati gisa hartuta tokian toki espazio libre eta berdeguneen sistema

*orokor eta tokian tokikotzat kalifikatutako espazioak, eta aplikatzekoak izango zaizkie ekosistemen zerbitzuen jarraitutasuneko, zaintzako eta errefortzuko printzipioak.>>*

▪ **LURRALDEAREN JASANGARRITASUNA JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUAN**

**159. *Hiri-birgaitzeko, -berroneratzeko eta -eraberritzeko esku-hartzeak.***

Hiri-birgaitzeko, -eraberritzeko eta -berroneratzeko esku-hartzeak LAGen Berrikuspenaren lehentasunetako bat dira, eta horrela ikusten da, etengabe, “Hiri Habitata” 6. kapitulu osoan eta, bereziki, “Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea” atalean.

**160. *Herriguneetatik kanpoko poligonoetan hirugarren sektorerako aldaketak mugatzea.***

LAGen Berrikuspenaren apustua hiri-lurzoruan beste hiri-erabilera batzuekin (bizitegia eta aisia, adibidez) bateragarriak diren jarduera ekonomikoak txertatzea da. Beste alde batetik, industria-poligono izandakoetan dendak biltzeko fenomenoak merkataritza-ekipamendu handiek dakartzaten ondorio negatiboen antzeko ondorioak dakartza.

**161. *Jarduera ekonomikoak hirira itzultzea.***

Gero eta jarduera ekonomiko gehiago dira bateragarriak bizitegi- eta aisia-erabilerarekin, eta horrek erabilera-nahasketaren eta hiri-bizitzaren konplexutasuna handitzen du. Alderdi horiek “Hiri Habitata” 6. kapituluaren jorratzen dira.

**162. *Eredu ekonomiko ekologikoagoak izatea.***

Adierazi bezala, Aurrerapenak atal berri bat du, 8.3 “Ekonomia Zirkularra” izenekoa. Horrek eredu-aldaketa bat adierazten du, erabilitako baliabideek fluxu ekonomikoaren barruan ahalik eta denbora gehien eman dezaten bilatzen da-eta. Ekonomia zirkularraz gain, dokumentuak beste modu batzuen alde ere egiten du; adibidez, ekoizpena-kontsumoa ziklo laburrak, eta ekonomia berdea, azpiegitura berdea kontzeptutik abiatuta.

▪ **HIRI-HAZKUNDEKO PERIMETROA**

**163. *Hiri-hazkundearen mugak zehaztu behar dira.***

Hiri-hazkundeko perimetroa Aurrerapeneko 6.3 atalean lantzen da, hiri-orbanak lurraldean duen aurrerapena gelarazteko neurri osagarri moduan (hiri-berroneratzearen eta -eraberritzearen eta dentsifikazioaren ondoren).

▪ **BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA**

**164. *Bizitegi-kuantifikazioari aplikatutako metodologiak beharrezkoak dira.***

Beharrezkotzat jotzen da metodologia bat aplikatzea (nahiz eta LPP bakoitzak zehaztu ditzakeen), EAE osorako irizpide komunak zehazteko udal-plan bakoitzak proposatzen duen bizitegi-eskaintza mugatzeko. Bizitegi-kuantifikazioa Aurrerapeneko 6.5 atalean lantzen da.

▪ **BIGARREN ETXEBIZITZA ETA BALIABIDE TURISTIKOAK**

**165. *Bigarren etxebizitza eta turismoaren garapena sustatzea, egungo herriguneei lotuta eta, bereziki, landakoei, idiosinkrasiari eutsiz eta irisgarritasuna eta ekipamenduak hobetuz.***

LAGen Berrikuspenak 7.4 atalean planteatzen du baliabide turistikoen antolamendua. Gidalerroen barruan, adierazten da hau egin behar dela: <<*Baliabide Turistikoen Lurralde Plan Sektoriala idatziko da, dagokion legeria sektorialean ezarritakoarekin bat etorriz, Autonomia Erkidegoko lurralde-garapen turistikoaren eredua zehaztuko duena, baliabide turistikoen babesa, ingurumen-ebaluazioko irizpideak eta jarduera turistikoaren jasangarritasun-ratioak arautuz, baita jarduera horren lurralde- eta kultura-alderdiak eta alderdi sozioekonomikoak hobetzeko neurriak ere.*>>

**166. Turismo jasangarria sustatzea.**

Aurrerapeneko 7.4 atalak baliabide turistikoak lurraldearen ikuspegitik jorratzen ditu, eta, han, adierazten da ezinbestekoa dela gaiari jasangarritasunetik heltzea, hau esaten baitu: <<Natura- eta kultura-dibertsitatea da Euskadiko baliabide turistikoen ezaugarri nagusia, eta eredu bat zehaztu behar da baliabide horien garapena eta lurralde-jasangarritasuna bermatzeko.>>

○ **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**

▪ **OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN MUGIKORTASUNA**

**167. Bizikleta-azpiegituren sarea beste mugikortasun modu bat gehiago balitz bezala hartu behar da kontuan, bide-sarearen eta trenbide-sarearen maila berean, eta bere sarea eduki beharko luke.**

Bizikleta-azpiegituren sareak mugikortasun modutzat hartzen dira, Aurrerapeneko 9.2 atalaren izenak berak adierazten duenez: “Motorizatu gabeko mugikortasuna edo oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna”. Atal horretan adierazten da lurralde historiko bakoitzak bizikleta-bideen bere foru-araua duela, eta horrek izaera juridikoa ematen dio bizikleta-bidea kontzeptuari.

**168. Bizikleta-ardatzen sarea hedatu udalerri arteko bizikleta-sare bat garatzeraino.**

Aurrerapeneko 9.2 ataleko 2. gidalerroak adierazten duen bezala, helburua da <<*bizikleta-sare seguru, koherente, irisgarri eta jarraitua ahalbidetzea, bide-etenik gabea eta ulertzeko erraza, bizikletaren erabilera sustatzeko bide laburrenak bilatuko dituen, gehiegizko maldak eta ibilgailuen eta oinezkoen trafikoekiko interferentziak saihestuko dituen eta muturreko klima-baldintzetatik babespean geratuko dena.*>>

**169. Bizikletaren eta garraio publikoaren arteko intermodalitatea hobetzea.**

Aurrerapeneko 9.2 atalak, alderdi garrantzitsu moduan, aitzat hartzen du <<*bizikletaren eta garraio kolektiboko zerbitzu publikoaren arteko intermodalitateak betetzen duen zeregina eta bizikleta elektrikoa garraibide gisa erabiltzeko potentziala.*>>

**170. Linealtasunak, ardatz nagusiak sortzeak (dela oinezkoentzat dela bizikletentzat), ibilbide osoan zehar zabaltzen laguntzen du.**

Eraldaketa-ardatzak oinezkoentzako eta bizikletentzako espazioak sortzeko aukera moduan hartzea Aurrerapeneko 6.1 ataleko 3. puntuan lantzen da.

▪ **BIDE-MUGIKORTASUNA**

**171. Laneko joan-etorriak eta zirkulazio-pilaketak murrizteko beharra.**

Dentsitateak eta erabilera-nahasketak (Berrikuspenaren bi proposamen) lantokia, bizilekua eta aisia gertu egotea eragiten dute; horrek oinez eta bizikleta bidez lekualdatzeko aukera sustatzen du eta zirkulazio-pilaketak murrizten ditu.

**172. *Garraio publikoko zerbitzu bakarra (txartel bakarra) EAE osorako.***

Gorago adierazi bezala, txartel bakarra oso garrantzitsua da mugikortasun kolektibo multimodala lortzeko. Hau dio Aurrerapenak 9.1 atalean: <<Garraiobideen erabilera optimoak lankidetzazko lan koordinatua eskatzen du, EAE osoari garraio-zerbitzu publikoa eskainiko diona, elkarren arteko eragiketak ahalbidetuko dituena, txartel bakarraz erabiltzeko modukoa; fisikoki zein ekonomikoki irisgarria; azkarra eta segurua erabiltzaile guztientzat.>>

▪ **TRENBIDE-, PORTU-, ETA AIREPORTU-MUGIKORTASUNA**

**173. *Zabaldtu eta optimizatzea: trenbideko garraio sarea, salgaiak itsaso bidez garraiatzeko portuen sarea, aireportu-sistema eta haien arteko lotura.***

Lehen ere adierazi bezala, aireportu-azpiegiturek, zenbait portu-azpiegiturak eta AHTak, zenbait arrazoi direla medio, eskumen-eremuak dituzte, eta, ildo horretan, erabaki sektorial exekutatuak eta exekutatzen ari direnak. Dena den, 9.4 puntuan koordinaziorako lurralde-jarraibide batzuk ematen dira.

▪ **MUGIKORTASUN KOLEKTIBO MULTIMODALA**

**174. *Garraio publikoko garraiobideen erabilera eta haien arteko lotura sustatzeko proposamenak: txartel bakarra sustatzea, automobilaren erabilerari mugak jartzea, irisgarritasuna hobetzea, tarifak murriztea eta maiztasuna handitzea.***

Iruzkinean zenbait proposamen egiten dira garraio publikoaren erabilera sustatu eta loturak hobetzeko. Eta, oro har, Aurrerapenak 9.1 atalean dioen bezala: <<Garraiobideen erabilera optimoak lankidetzazko lan koordinatua eskatzen du, EAE osoari garraio-zerbitzu publikoa eskainiko diona, elkarren arteko eragiketak ahalbidetuko dituena, txartel bakarraz erabiltzeko modukoa; fisikoki zein ekonomikoki irisgarria; azkarra eta segurua erabiltzaile guztientzat.>>

○ **URA**

**175. *Kontsumoa murriztea, sentsibilizazio-kanpainak eta banaketa-sistemen eraginkortasuna hobetzea.***

Lehen adierazi bezala, uraren planifikazioa modu osoan egiten du URA-Uraren Euskal Agentziak; eta 8.1 atalean arlo horretan kontuan izan beharreko jarraibideak adierazten dira.

○ **ENERGIA**

**176. *Energia berriztagarriak eta autokontsumoa sustatzea.***

Aurrerapeneko 8.2 ataleko helburuetako bat hau da: <<Elektrizitatea sortzeko parkearen jasangarritasuna hobetzea, berriztagarrien eta kogenerazioaren instalazio berriak erantsiz, banatutako sorkuntza handituz eta autokontsumoa sustatuz.>> Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ardatz nagusietako bi dira, eta Aurrerapenean jasota daude, 8.2 puntuan.

**177. *Frackinga eta horrelako erauzte-jarduerak arbuiaetzea.***

Hau adierazten du 4.1 atalak: <<Jasangarritasunaren mesedetan, bazter utzi beharko litzateke energia-iturri ez-berriztagarri ez-konbentzionalen bilaketa. Haustura hidraulikoaren kasuan zehazki, zorupearen konposizio-aldaketaren ondorioen gaineko zalantzak eta lurzoruan instalatzearen inpaktuak, biztanleriari eta hiri-azpiegiturei dagokienez nabarmen trinkoa den lurralde batean –hots, EAEn– jardutearekin batera, teknika horren garapena ez burutzea aholkatzen dute.>>

**178. Birziklatzea eta berrerabiltzea handitzea.**

Lehen ere adierazi bezala, Aurrerapenak atal berri bat du, 8.3 “Ekonomia Zirkularra” izenekoa. Horrek eredu-aldaketa bat adierazten du, erabilitako baliabideek fluxu ekonomikoaren barruan ahalik eta denbora gehien eman dezaten bilatzen da-eta.

○ **GOBERNANTZA: PARTE-HARTZEA, ANTOLAMENDUA, ADIERAZLEAK**

**179. Prozesuak gehiago hedatu eta haiei buruzko informazio gehiago ematea, parte-hartzeko kanal jarraituagoak jarritz.**

Parte-hartzeak ez du mugatu behar horretarako ezarritako aldira. Eta Aurrerapenean alderdi hori azpimarratu egin nahi izan da, hau adierazten baita gidalerroetan parte-hartzeari dagokion atalean (11.3 puntua): <<Lurralde-plangintzako tresnen ezarpenean eta jarraipenean parte-hartze presentziala eta digitala bermatzeko behar diren bitartekoak gaitzea.>>

○ **BERRIKUNTZAK: ONDAREA, HONDAKINEN KUDEAKETA, PEDAGOGIA ETA SENTSIBILIZAZIOA, SMART CITYak ETA SMART CITIZENak, PERTSONA ERREFUXIATUAK ETA MIGRANTEAK**

**180. Hondakinak sortzea prebenitzea eta hauek sustatzea: murrizketa, berrerabilera, birziklatzea, balorizazio energetikoa, tratamendua, eta metatzea, azken alternatiba moduan.**

Adierazi bezala, Aurrerapenak atal berri bat du, 8.3 “Ekonomia Zirkularra” izenekoa. Horrek eredu-aldaketa bat adierazten du, erabilitako baliabideek fluxu ekonomikoaren barruan ahalik eta denbora gehien eman dezaten bilatzen da-eta.

**181. LAGekin lotutako zenbait alderdiri buruzko ekintza pedagogikoak eta sentsibilizaziokoak egitea.**

Gorago adierazi dugunez, une honetan hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloan ari gara lanean, ez bakarrik Gidalerroen Berrikuspenaren eta horrelakoen baitako parte-hartze prozesuetan, baita beste zenbait arlotan ere, paisaiarenean kasu.